



**Egurraren
interpretazio
zentroa
Zegaman**



**Ataungo ogibide
historikoak**



**II. Zegama
Aizkorri
mendi maratoia**



**III. Beasaingo
triatloia**



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ODONTOLOGOA



**ERABATEKO
H O R T Z
KLINIKA**
GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAT
ERABAT EGOKITUAK DAUDE, KLINIKAK SAN
INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK
INTEGRATUA

Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbitzurik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.



RPS144/02



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

www.anzizar.com



EUROLAN 4x4-k zerbitzu berria ireki du Goierrirako: ANZIZAR



THE LAND ROVER EXPERIENCE

ANZIZAR Beasain-Zumarraga errepidea Telefonoa: 943 88 17 00

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)
124 posta-kutxa ORDIZIA
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
Posta elektronikoa:
goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu
Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor
Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna,
Eduarne Albizu, Eduarne Soraluze,
Agurtzane Bikuña, Aimar Maiz, Zelai
Amenabarro, Mari Flor Mendizabal,
Aitziber Murua eta Iñaki Ugalde.


Fotokonposizio eta maketazioa:
Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 7.000 ale
SSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89
Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Goierritarra aldizkariaren aldeko 2003ko laguntza kuota uztailaren 11n kobratuko da

Iazko urtean posta gastuak ordaintzeko egindako laguntzaile kanpainaren ondorioz, 12 euroko kuota kobratzen hasi zen GOIERRITARRA aldizkaria. Aurtien ere, gauza bera egingo da. Beraz, 2003ko laguntza kuota uztailaren 11n kobratuko zaizue, iaz emandako kontu korronte zenbakitik.

Eskura ordaindu zenutenok ere, ordaintzeko aukera izango duzue, GOIERRITARRA aldizkariaren bulegora etorri eta GOIERRITARRA aldizkari-ko kontu korrontean dirua sartuz. Dena den, edonolako zalantzarik izanez gero, deitu lasai GOIERRITARRA aldizkarira: 943889612.

Goierritarra Goierriaz kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro

Jabier Irastorza konfinatu egin dute

Beasaingo presoak ekainaren 30ean amaitzen zuen Frantzia betetzen ari zen kartzela zigorra. Espainiako polizia-
ren esku utzi eta torturatuko zutenaren beldur, gose greba
egin zuen Irastorzak. Dena den, erabaki berria hartu du
Frantziak: Paristik 150 kilometrorra dagoen Troyes hirira
konfinatzea. Perpignano kartzelatik irten eta 48 orduko
epea izan zuen beasaindarrak Troyeseraino joateko. Bere
burua egunero aurkeztu beharko du Troyes hiriko prefetu-
ran. Etxerat elkartekoak oso kezkatuta zeuden, izan ere,
"aste baten buruan utzi dezakete Espainiako Poliziaren
esku. Irastorza aske dago, baina kanporatze agindua dago
bere aurka".



Jon Gorrotxategi etxean baimen bereziarekin

Soto de Realgo kartzelan dagoen Jon Gorrotxategi presoak
baimen berezia izan zuen ekainaren 27an. Beasaingo bere
etxean izan zen arratsaldeko 3etatik 8ak arte. Hilabetean
ama eta aita hil zaizkio Gorrotxategiri eta familiarekin
egoteko baimena eman dio Baltasar Garzon epaileak. Era
honetako baimena ematen den lehen aldia izan da. Argaz-
kian, Jon Gorrotxategi etxetik atera zuten unean, Ertzañez
inguratu.

Maite Otegik irabazi du XI. Gerriko Ikerlan Beka

'Zergatik euskaraz. Goierriko euskaltegi-tako ikasleen
motibazioak. Ikerketa psikosoziolinguistikoa' izeneko
proiektua aurkeztu du Maite Otegik XI. Gerriko Ikerlan
Bekara. Orain urtebeteko epea izango du lana garatu eta
aurkezteko. Joseba Intxausti historialaria, Kike Amona-
rriz soziolinguista eta Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txil-
lardegi' izan dira epaimahaikideak.

Ekainaren 27an egin zen sari banaketa ekitaldia, Laz-
kaoko udaletxean. Bost lan aurkeztu dira XI. Gerriko
Ikerlan Bekara. Gainerako lau proiektuak honakoak izan
dira: 'Amerikako emigrazioa Gipuzkoako Goierri-
(1839-1936)', 'Nortasunak, hizkuntzak eta irudiak Globa-
lizazio aroan: Goierriko gazteen nahiak eta adostasunak',
'Beasaingo euskara' eta 'Lazkaoko baserriak: aurreko,
oraingo eta etorkizuneko egoera'.

Goierriko Euskal Eskolak, Lazkaoko Udalak eta Maiz-
pide Euskaltegiak antolatutako beka da honakoa. Irabaz-
leak 6.000 euro jasoko ditu saritzat.

Balioaniztun Zentroa ireki da Zegaman

Herriko zaharrenentzako laguntza bideak hobetzea helburu

Ekainaren 12an Zegamako landa zentro balioaniztuna
inauguratu zen. Egunezko zentroa, adinekoentzako etxebi-
zitza babestuak, gizarte zentroa eta jantokia ditu. Olan-
an auzoan babes ofizialeko etxeen eraikinean kokatzen da,
behe solairua eta lehen solairuko zati bat hartuta.

Bertan eskainiko diren zerbitzuak hauek dira: 6 lagu-
nentzako egunezko zentroa, lau lagunentzako hiru logela-
ko etxebizitza babestuak, gizarte zentro bat eta adineko-
entzako jantokia. Azken hau irekia izango da eta ez egu-
neko zentroaren erabiltzaileentzat bakarrik. Osasun zen-
troa ere bertan egongo da.

URBITARTE
tolare
sagardotegia



Erretegi modura zabalik
Sagardoa txotxetik dastatzeko aukera

Tel.: 943 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN




MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA

iBAi ONDO



AROTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefona: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



Megalito guneak babesteko dekretua onartu du Eusko Jaurlaritzak

Duela hiru urte Gipuzkoako megalito guneak Kultur Monumentu izendatu zituzten, eta haiek babesteko neurriak hartzen hasi ziren. Ekainaren 24an Eusko Jaurlaritzak jakitera eman zuenez, behin-betiko onarpena eman zaio orain prozesuari, dekretu bidez. Gipuzkoan 28 megalito gune izendatu dituzte. Goierriin zazpi megalito gune izendatu eta babesteko dira: Aizkorri, Altzania, Aralar, Aratz-Altsasua, Ataun-Burunda, Brinkola-Zegama eta Murumendi.

Goierriko bi natur gune babes zerrendan sartu ditu Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoako lurraldearen % 20,2a Natura 2000 Europako sare ekologikoaren barruan sartzea onartu du. Tartean, Goierriko bi gune ditugu: Aizkorri-Aratz eta Oria ibaiaren lehenengo kilometroak.

Goiekiren eskutik

Idea Berriztatzaileen VII. sariketa

Goiekik, Goierriko Garapen agentziak, Idea Berriztatzaileen sariketa antolatu du zazpigarren urtez. Goierriko eskualdean enpresa berri bat antolatzeko borondatea duten pertsonen zuzendutako sariketa da. Idea eta proiektu berritzaileak bultzatzearekin batera, sustatzaileen irudia babestea da sariketaren helburua, enpresa egitasmo berrien garapena erraztuz eta era berean lanpostu berriak sortuz. Idea berriztatzaileak aurkezteko epea irailaren 30ean amaitzen da.

Bi sari banatuko dira:

- 1. saria:** 9.000 euro proiektua martxan jartzerako momentuan eta pabilioi industrial bat lehenengo urterako.
- 2. saria:** 3.000 euro eta pabilioi industrial bat lehenengo urterako.

Idea hoberenentzako, 'Entrepresen kudeaketan heziketa' eta Goiekiko enpresen inkubategian proiektua garatu ahal izateko laguntza izango da.

Goierri 2005 Idea Berriztatzaileen VII. Sariketan parte hartu nahi duenak, Goiekiko 943161831 telefono zenbakira deitu behar du edo eta bertan izena emateko orria jaso.



BAKAS

- MISS SIXTY
- KILLAM
- INDIAN ROSE
- ...

Tel: 943 88 79 92
Garagarza plaza 3
20240 ORDIZIA

VOLVO

LAND-ROVER

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48 11
www.anzizar.com
BEASAIN

ZUHAIZKI
S. A. L.


ZURGINDEGIA

X LEIHOAK, ATE-AK eta abar
X ESKAILERAK NEURRIRA

Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxe: 943 67 36 55

Sasietaren kamisetak eskuragai

Sasieta Mankomunitateak hiru koloretako kamisetak eskuratzeko aukera ematen du. Horretarako proposamen bat egin behar da honako galdera honi erantzunez: Zer egingo zenuke zaborra gutxitzeko?



Kamiseten irudia.

Proposamenak bidaltzen dituzten lehenengo 50 lagunek jasoko dituzte kamisetak. Hiru koloretakoak daude: urdina, horia eta berdea. Neurriak ere, ezberdinak: umeen neurria, S, M, L eta XL. Beraz proposamenarekin batera, izen-abizenak, eta kamisetaren kolorea eta neurria zehaztu beharko dira. Guztia Beasaingo Martina Maiz kaleko 3. enera bidali behar da, lehenbailehen.

'Bizitzaren autobusa' uztailaren 7an eta 8an Beasainen

Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak Osasunaren arloko Sustapen eta Heziketa kanpainan buru belarri sartuta dabil, 'Bizitzaren autobusa' rekin. Herritarrok oro har, eta emakumezkoak bereziki, ohitura osasungarriak izatearen garrantziaz kontzientziatu nahi dira. Horrekin batera, minbizia zer den eta nola prebenitu genezakeen erakutsi nahi du autobusak.

Ikusentzunezkoak, panel interaktiboak, ordeganailuak eta abar ditu 'Bizitzaren autobusa'. Estatu Espainiar guztian dabilen autobus ibiltaria da. Bisitariak bost gaiei buruzko informazioa jasoko du: elikagaia, tabakoa, eguzkia, bularreko minbizia eta 'Cervix' minbizia.

'Bizitzaren autobusa' uztailaren 4an iritsiko da Gipuzkoa-ra. Beasainen, uztailaren 7an eta 8an egingo du bisita. Gipuzkoa plazan egongo da, goizez eta arratsaldez.

Patxi Zubizarretak helduentzako liburua idatzi du: 'Barrikadak'

Ordiziako idazlea berriz ere helduentzat idaztera itzuli da. Alberdania argitaletxearen eskutik, 'Barrikadak' liburua aurkeztu zuen ekainaren 17an. Gasteiztik Donostiarako tartea egiten duen espreso batean gertatzen da 'Barrikadak' nobela berriaren istorioa. Ignacio Aldekoa saria irabazi zuen Patxi Zubizarretak lan honekin. Azkeneko urteetan haur eta gazte literaturan murgildurik aritu da ordiziarra. Helduen arloan laugarren liburua da 'Barrikadak'.



Ekaitz Goikoetxea

Oñatin saritua

Beasaingo bertsolariaren 'Itsasertzetik, zuri Kaxiano!!!' bertso sortak irabazi du Oñati Hiria bertso-paper lehiaketa.



Parrondotarrak Segurako dantza txapelketako irabazleak

Hernaniko Aitor eta Amaia Parrondo anai-arrebek irabazi zuten Segurako Euskal Herriko XXVII. dantza txapelketa.

Espainiako 1. mailako emakumezkoen softbol lehiaketa, Beasainen

Uztailaren 4tik 6ra bitartean, Espainiako 1. mailako emakumezko softbol lehiaketa jokatu da. Lehenengo bi egunetako kanporaketak Beasainen jokatu dira, Igartzako zelaian, uztailaren 4an eta 5ean, goizez eta arratsaldez. Espainiar Estatu-ko 6 talde lehiatu dira: Atletico San Sebastian (Donostia), San Lazaro (Oviedo), Unibersidad Da Coruña-Tiburones (A Coruña), Helios (Lugo), Universitat de Valencia (Valentzia) eta UPV de Valencia (Valentzia). Finala, uztailaren 6an, jokatu da Donostian.

Josune Bereziartu: 8c+

Hirugarren aldiz, Na-Nai bidea kateatu du Josune Bereziartu eskalatzaileak. 8c+ zailtasuneko bidea da eta bera da zailtasun horretako bidea hiru aldiz egin duen lehen emakumea.

Beasainen, uztailaren 12an, usakume tiraketa uso jaurtitzailearekin

Aitz-Zorrotz Elkartek antolatuta uztailaren 12an Beasaingo Salbatore auzoan, Itolako zelaian. Ordutegia: 9etatik 13:30era eta 15:30etik 18etara. Baldintzak: 3 usakume jarraian askatuko dira. Izenemateak: 20 Euro usakumeak aparte. Guztira: 35 Euro. Sariak: 800, 400, 300, 200 eta 100 euro. 1. bazkidearentzat sari berezia. Kanporaketako usakumeak, 5 euro bakoitza.

Iñaki Eskisabel

Beasaingo entrenatzailea

Entrenatzaile berria izango du 2003-04 denboraldian Beasain futbol taldeak: Iñaki Eskisabel, Beasaingo jokalaria ohia, eta taldeko kapitaina izandakoa.

Euskal Herriko erle beltza kontserbatu nahian (II)

Egun gauza jakina da, gure Lurra biodibertsitatea bortizki galtzen ari dela. Azkeneko urteotan interes berezia sortu da etxabereen bertako arrazak berreskuratu eta suspertzeko, eta erlea, *Apis mellifera* espeziea ez da salbuespena. Izan ere, espezialista ugari bertako erle-populazioak babesteko beharra azpimarratu dute.

Bertako erlearen alde lanean jarduteko arrazoiak ugari dira:

1. Natur inguruneen kontserbazioa: erleak polinizatzaile nagusienak izanik, ezinbestekoak dira ekosistemen eta nekazal landaketa askoren garapen egokirako. Gainera, erleak inguruko klima eta florarekiko duen adaptazioa kontutan izanik, bertako erleak izango dira lurralde bakoitzerako polinizatzaile eraginkorrenak. Polinizazioari esker sortuko diren hazi eta fruituak ezinbesteko dira landare eta animalia askoren elikadura eta bizi iraupenean.

2. Erlea zainketa beharrean: erleak "barroasia" izeneko gaitza jasaten ari dira. Honek, lehenago ugari ziren "basaerleen" desagerpena ekarri du. Ondorioz erlea, erlazainen zainketaren menpe dago erabat, libreki erleak hil egiten baitira, urtero, barroaren kontrako neurriak hartzen ez badira.

3. Erle beltza galtzeko arriskuan: Erlazantza teknika berrien zabalkundearekin, eta batez ere, Europa osoan barroasiak eragindako hilkortasuna dela eta, bestelako er-



le-arrazak sartu-inportatu dira. Honek, bertako erle arrazaren nahasketa eta kolonia hibridoen ugaritzea ekarri du.

4. Arraza barneko aldakortasuna mantentzeko: gure lurraldeak eskaintzen dituen baldintza ekologiko desberdinak direla eta, ekotipo (ingurunearekiko adaptazio espezifikoak dituzten populazioak) desberdinak daude. Historian zehar, bertako erlearengan eman diren adaptazio eta herentzi genetikoak galtzea, sekulako altxorra galtzeaz bat astakeri galanta ere bada.

5. Bertako erlazantzaren onerako: bertako erleak, bertako klima eta loraldietara adaptaturik egonik, zainketa eta arreta minimoekin ezta modu erregular batean ekoizteko aukera ematen du. Egokituagoa dagoenez, rustiko edo gogorragoa azaltzen da, edozein ezbeharren aurrean erantzuteko ahalmenuago dagoelarik. Hori dela eta, bertakoa da erlazainontzat eta gure lurraldeko izadiarentzat erlerik egokiena.

Gipuzkoako Erlazainen Elkarteak lankidetzan

"Bertako erle beltzak, bertako klima eta loraldietara adaptaturik egonik, zainketa eta arreta minimoekin ezta modu erregular batean ekoizteko aukera ematen du."

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

JAKIN BEHARREKOA

✓ Ekainaren bukaera eta uztailaren hasiera bitarteko garaia da, **erle erregina berriak ernaltzeko momenturik aproposena**. Hauek, sortzen direnetik, heldutasunera iritsi eta 6 bat egunetan lortzen dute heldutasun sexuala. Egun horretatik erregina gazteak 8 bat egun izango ditu ernaltzeko aukeran, eta honen arrakasta giltzarria izango da etorkizunean osatuko den erlauntzaren bizitzan.

✓ **Mendi aldeko masusta landareak loretan izango ditugu**, eta erlatokirik bada, erleez bisitaturik. Behealdekoak aldiz jada fruituak heltze bidean dabiltza, orain orlegi kolorezko puxtarri txiki multzo borobilduan, "ilezko" geruza antzeko batekin, gerora gorri jantzi eta azkenik beltzu edo moretzeko. Jakin asko belar hilkariren tratamenduekin egon izaten direla, bide bazter eta baserri inguruetan, hauek ugaltu eta zabal ez daitezzen beren belardi eta ingurura.

✓ Lursail murko eta bide ezpondetan, isilpean loratu eta jada beren gorri biziz horren deigarri suertatzen diren **marrubi silbestreak oraintxe dabiltza pasatzeaz**, azken ahaleginen garaia duzue aurtengo azkenak dastatzeko. Zoritxarrez, errepideen ugaltzearekin, eta batik bat trafiko dezentente artean kokatzen direnekin, kontu izateko gomendatzen da, izan ere, autotako erregaien ondorioz, berun karga kutsakorra azaltzen baitute.

Sasi guztien gainetik, laino guztien azpitik: Euskal Herria aurrera!

"Lehendabizi beltzak eraman zituzten, baina ni horietakoa ez nintzenez, ez ninduen arduratu. Gero juduak eraman zituzten, baina ni horrek ere ez ninduen arduratu. Gero komunistak eraman zituzten, baina ni ez naizenez komunistak ez ninduen arduratu. Orain nire bila datoz, baina dagoe-neko beranduegi da". (Bertold Brecht)

Leizeak hutsik daude. Etxeko sutondoa epelik gabe eta gaur, hemen, suaren ondoan dantzatzen dugunak ez gara libre, ezta hesiaren bestaldetik begira zaudetenok ere. Inkisizioa 1483. urtean sortu zen. Izaera erligioso-politikoa zuen auzitegi berezi hura oso tresna eraginkorra izan zen Euskal Herrian egoera politikoa kontrolpean edukitzeko eta sortzen ari zen estatu mota baten berdintasun ideologikoa lortzearen erbelatu zen disidentzia zigortzeko. Hiztegiek diote XVIII. mendean desagertu zela auzitegi hura, baina historiari bestelakorik dio.

Inongo gorte edo epaitegietan aurrekaririk ez duen neurri batek lehengo garaietara garamatza. Lehenengo aldiz, ofizialki, Euskal Herriko milaka biztanlek ez du herri-tar izateko eskubiderik. Milaka pertsonen hitza isilarazi dute gutxi batzuen laguntzarekin eta askoren isiltasunarekin. Gaur, duela hiru mende bezala, herrietatik ihes egitera bultzatu nahi gaituzte, pentsatze hutsagatik delitua egiten dugulako.

Gaur suaren ondoan dantzatzen dugunok herri honetako ehunka sorginen eskubideak aldarrikatzen ditugu, espetxean zein erbestean dauden ehunka euskaldunenak eta herrian eskubiderik gabe geratu diren 1.012 pertsonenak ere bai. Erabakitzeko eskubidea eskatzen dugu, herria egiteko eskubidea.

Bihoaz sutara bestela eskubiderik ez izateagatik ordaintzen ditugun zergak!

Bihoaz sutara komunikabideetatik Inkisizioari zaunka egin eta gero haien laguntzaile finenak diren kareta zu-riak!

Bihoaz sutara hitza kendu digutenon aurrean isilik egon diren beldurrak!

Hitz egin dezagun. Guztiok egin diezaiogun aurre injustiziarri.

Herri bat garelako zigortu nahi gaituzte. Pentsatzea delitu bilakatu dute. Gogoan izan beti Bretchen hitzak: "Orain nire bila datoz, baina dagoe-neko beranduegi da". 1953ko uztailaren 26an, iraultzaile talde batek Moncadako koartela erasotu zuen Santiago de Cuban. Saiakerak porrot egin eta Fidel Castro abokatu gaztea buru zuen taldea atxilotu egin zuten. Matxinatuen kontrako zigor gogorra izan behar zuen epaiketa Batistaren diktaduraren kontrako ekin-tza bilakatu zen. Castrok bere burua defendatu zuen, ordu luzetan, epaileen aurrean eraikuntza nazionala oinarri zuen programa demokratikoa aurkeztuz.

Leizeak hutsik daude. Etxeko sutondoa epelik gabe. Euskal Herria epaitzen ari dira eta gaur, inoiz baino gehiago, 1953an, Castrok epaileen aurrean egin zuen diskurtsoaren azken hitzak geureak egiten ditugu: "La historia nos absolverá".

Aitor Garmendia
(Irriki Kultur Elkartearen izenean)

* San Joan suaren aurretik
irakurritako idatzia.



KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea 943 88 60 70
BEASAIN

AEKren XII. txiste lehiaketako irabazleak

Goiztiri AEK euskaltegiak antolatu eta Ordiziako Udalak Euskara Aholku Batzordeak babestutako XII. txiste eta pasadizo idatzien lehiaketan saritutako 3 txisteak dituzue ondorengoak. Aurtengoan Goierri guztitik, baita Euskal Herriko hainbat lekuetatik ere, bidalitako 125 txisteen artean aukeratu dituzte hirurak. Irabazleek bina afari izango dituzte Arama, Altzagarate eta Aztiriko jatetxeetan. Txiste guztiak irakurri nahi dituenak Goiztiri AEK-koekin harremanetan jarri besterik ez du.

Zeruan zer?

Behin trafikoko istripu batean hiru lagun hil ziren. Hirurak zerura igo eta San Pedrok hartu zituen. Honek bertako bizitza nolakoa izango zen azaldu zien:

- Hemen, zeruan, mundu guztia autoz ibiltzen da batetik bestera, eta autoaren kalitatea bizitzan zehar izandako portaeraren arabera izaten da.

- Zuk, Jon, zure emaztearekin 20 alditan desleiala izateagatik, matxuraz beteriko 'Twin-go' bat gidatuko duzu.

- Zuk, Andoni, emazteari 5etan adarrak jartzeagatik, akats gutxi eta orokorrean nahiko ondo dagoen 'Corsa 1.400' bat izango duzu.

- Eta zuk, Jaime, zure emaztearekin fidela izan zarelako, 'Aston Martin V8' bat gidatuko duzu, larruzko tapizeria, 240 W-ko JBL audio-ekipoa eta kirol kit-duna. Gainera, gain-sari gisa, Hilton hoteleko presidente-suitean ezarriko zara eta golf klubeko bazkide egingo zaitugu.

Behin banaketa eginda, bakoitzak bere automobila hartu eta zerua bisitatzeraz joan zi-

ren hirurak. Lau hilabete igaro ondoren, kilometro asko egin ondoren, hirurak kasualitatez semaforo batean topo egingo dute. Joan eta Andoni euren autoetatik jaitsi elkarri agurtzeko eta Jaime bere 'Aston Martin'etik ez dela jaisten konturatzen dira. Negar zotinka ikusten dute bolantearen kontra eta harrিতa berarengana joan ziren:

- Zergatik ari zara negarrez, Jaime? Zeruko autorik onena daukazu eta maharaja baten moduan bizi zara eta! Ez daukazu horrela egoteko inolako motiborik...

- Ezetz? Joder... Oraintxe ikusi berri dut nire emaztea patinete batean.

(Ordiziako Goiztiri AEK-ko Urdanetako 4. urratseko ikasleak)

Amonatxo gajoa

Epaiketa baten gertatutakoa:

- Abokatu defendatzailea: Zenbat urte dituzu?

- Amonatxo: 86 urte dauzkat.

- Abokatu defendatzailea: Esango al zeniguke, mesedez, zure hitzetan gertatutakoa.

- Amonatxo: Ni han nengoen udaberriko gau atsegin hartan nire etxeko atarian betiko aulkian eserita eta bat-batean gazte bat hurreratu eta nire ondoan eseri zen.

- Abokatu defendatzailea: Zuk ezagutzen al zenuen?

- Amonatxo: Ez, baina berak nahiko atsegina zirudien.

- Abokatu defendatzailea: Behin bera zure alboan eserita zer gertatu zen?

- Amonatxo: Bera nire hankak laztantzen hasi zen.

- Abokatu defendatzailea: Zuk geratu al zenuen?

- Amonatxo: Ez, nik ez nuen geratu.

- Abokatu defendatzailea: Zergatik?

- Amonatxo: Oso gustura nengoen, orain dela 30 urte nire senarra hil zenetik inork ez zidan horrelakorik egin.

- Abokatu defendatzailea: Zer gertatu zen ondoren?

- Amonatxo: Nire bularrak laztantzen hasi zen.

- Abokatu defendatzailea: Orduan zuk geratu al zenuen?

- Amonatxo: Ez, nik ez nuen geratu.

- Abokatu defendatzailea: Zergatik?

- Amonatxo: Beno, epaile jauna, bere ukituek bizi nengoela sentiarazi ninduten eta bero-bero nengoen. Urtetan ez nuen horrelakorik sentitu.

- Abokatu defendatzailea: Zer gertatu zen ondoren?

- Amonatxo: Beno, han bero nengoen nire hankak ireki besterik ez nituen egin eta horrela esan nion: har nazazu gaztea, dena zuretzat, egidazu amodioa.

- Abokatu defendatzailea: Orduan, berak amodioa egin zizun?

- Amonatxo: Bai zera! Berak zera oihukatu zuen bakarrik: inuzente egun ona izan dezazula! Eta orduantxe izan zen putakume horri tiro egin nion unea.

(Ordiziako Goiztiri AEK-ko Urdanetako 4. urratseko ikasleak)

Basamortuan

Bi lagun basamortuan zehar zihoazen. Bat-batean zerbaitekin estropuz egin zuten:

-Aizu, ze harri arraroa! Piramide bat ematen du!

Biak industen hasi ziren eta piramide handi-handi bat aurkitu zuten. Orduan:

-Ikusi hau! Zer egingo dugu?

-Ba begira, amerikar talde arkeologikoari deituko diogu. Oso profesionalak dira eta.

Amerikar taldea etorri zen tresneria guztiarekin; jeepak,

helikopteroak, ikerlariak, aparailu zientifikoak... Piramide barruan sartu eta bi urte beranduago atera ziren

- Zer dakizu piramideari buruz?

- Ikertu eta gero, piramide hau Kristo aurretik 1500 eta 2000 artean eraiki zen.

- Hori bakarrik? Bi urte ikeritzen eta hori bakarrik?

- Bai, bai

Orduan, bi lagunek Alemaniako taldea deitzea erabaki zuten. Alemaniarrak etorri ziren, piramide barruan sartu ziren. Bi urte pasa ondoren piramidetik atera eta:

- Zer ikertu duzue?

- Ba begira, piramide hau Kristo aurretik 1700 inguruan eraiki zen.

- Eta, zer gehiago?

- Ezin izan dugu jakin gehiago bertan dauden jeroglifikoak oso zailak dira.

Bi lagunak, oso haserre esan zuten:

- Ez dugu beste aukerarik, "guardia zibilei" deituko diegu.

Orduan guardia zibileko bikote bat etorri zen eta piramide barruan sartu zen. Bi egun pasa ondoren atera ziren eta:

- Zer azkarrak al zarete? Zer dakizue piramideari buruz?

- Kristo aurretik 1857. urtean eraiki zen Anketop IV erreinuan. Egun hura hodeitsua zen. Apaiz batzuk faraoiaren kontra altxatu ziren. 2.000 gatibuk baino gehiagok lan egin zuten eta iraultza egiten saiatu ziren. Faraoiaren emazteak oso soineko polita zerman eta...

- Aizue! Nola lortu duzue informazio hori guztia?

- Ba, kostatu zaigu, egia esan kostatu zaigu, baina azkenean momiak hitz egin du.

(Ordiziako Goiztiri AEK-ko Urdanetako 6. urratseko ikasleak)

Baso Zerbitzua bertan kokatuko da Gipuzkoako Egurraren Interpretazio Zentroa inauguratu da Zegaman

Zegamako Anduetza baserria goitik behera berritu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Erabilpena berria ere izango du hemendik aurrera, Gipuzkoako Egurraren Interpretazio Zentroa izango baita. Aizkorriko Parke Naturalaren izendapenaren atarian eta Zegamak basoarekin izan duen harreman zuzena kontuan hartuta, leku aproposa da Zegama Egurraren Interpretazio Zentroarentzat, Jon Mikel Murua Nekazaritza eta Ingurumen diputatu ohiak inaugurazioan azpimarratu zenez.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Baso Zerbitzuak 100 urte betetzen dituen honetan, egurrekin eta basogintzarekin lotura zuzena duen inaugurazioa egin zen ekainaren 25ean Zegaman. Anduetza baserrian, Gipuzkoako Egurraren Interpretazio Zentroa ireki zen. Egurrekin eta basogintzarekin lotutako gaien erreferentzia gune nagusia izango da hemendik aurrera Zegama.

Atal ezberdinak ditu Anduetza baserriak. Basozaintzat bulegoak kokatzearekin batera, erakusketa berezia ere ikusgai dago bertan: Imanol Artola Zegamako basozainak egindako enbor bilduma. Hurrengo orrian duzue



Sabin Intxaurre Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurumen sailburua, Juan Inazio Galdos Zegamako alkatea eta Jon Mikel Murua, Nekazaritza eta Ingurumen diputatu ohiak, zinta moztzen.

berari egindako elkarrizketa. Lehen ikuilua zen gelatxoan, azkenik, ikusentzuneak ikusgai izango da.

Kokapen egokia

Inaugurazio ekitaldian, Sabin Intxaurre Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Inguru-

men Sailburua eta Jon Mikel Murua Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen diputatu ohiak izan ziren, Juan Inazio Galdos Zegamako alkatearen aldamenean. Guztiak ere bat etorri ziren, Gipuzkoako egurraren erreferentzia gune izateko Zegamak arrazoi sendoak di-

tuela azpimarratzeko garaian. Batetik, Zegamak baso eta basozain ugari izan dituelako eta dituela historian zehar eta gaur egun ere. Eta bigarrenik, Aizkorri Parke Natural izendatzeko atarian gauden honetan, Parke Naturalerako sarrera nagusia izango baita Zegama.

Zegamako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean egindako lana izan da Interpretazio Zentroa. Basogintzari buruzko ikuspegi zabalagoa eta sakonagoa edukitzeko funtsezko elementua izango da Anduetza Baserria, Jon Mikel Muruaren esanetan.

Sabin Intxaurre Sailburuak, bere aldetik, bera ere basogintzak tradizio handia duen ingurukoa izanik, zoriondu egin zituen Diputazioa eta Zegamako Udala lan honengatik.

Anduetza ospitalea

Antzinako ospitaleek ez zuten inolako zerikusirik gaur egungoekin. Erdi Aroan, uste zen gaixotasuna norberaren bekatuek edo arbasoenek eragiten zutela, eta sendatzea Jainkoaren esku zegoela.

Horregatik, ospitaleak ez ziren osasun-zentroak: pasadizokoentzako edo etxerik gabekoentzako ostatu arruntak ziren, sendatu edo hil arte egoteko lekuak. Gela arrunt batzuk, gizonetakoak eta emakumetakoak banatuta egoten ziren, eta kapera (beheko solairuan edo horren inguruan) barnekoek beren egin-behar erlijiosoak betetzeko. Jateko, plater bat zopa, ogi-koskor batekin, eta etzateko, arto-hostoz eginiko koltxoia ere ematen zitzairen. Zenbait herritan, gainera, pasadizokoei gau bakarra igarotzen uzten zitzairen eta gaixoak, berriz, sendatu edo Jainkoak deitu arte egon zitezkeen.

1606ko maiatzaren 2an, Nikolas de Aranburu Zegamako parrokiako erretore jaunak agindu zuen Anduetza baserria Zegamako herrikoentzako, neska zurtzentzako edo apaiz ikasten ari zirenentzako ospitalea jartzeko eta eskalerik ez onartzeko. Kontuetaz Zegamako elizjendea eta justizia, gaur egungo alkatea eta zinegotziak izango lirateke, arduratuko ziren. Horretarako diru kopuru bat utzi zuen, horren interesekin gastuak ordaintzeko.



Antxon Agirre Sorondo

Imanol Artolaren enbor bilduma ikusgai

Euskal Herrian dauden 173 enbor bildu ditu zegamarrak

Zegamako Egurraren Interpretazio Zentroaren oinarria, Imanol Artola zegamarraren enbor bilduma da. Euskal Herrian bildutako 173 enbor ezberdin daude bitrintetan jasoak. Bakoitza bere txarteltxoarekin, izenak eta ezaugarriak azalduz. Arantzazuko fraideen lokal batetik, bere herriko Anduetza baserrira ekarri du bilduma Artola basozainak.

Noiz eta nolatan hasi zinen enbor bilduma egiten?

Duela zazpi urte eta erdi hasi nintzen. Diputazioan komentario bat egon zen: ea zergatik ez ginen hasten ilargiari begiratzuz, enborrak botatzen, ilargiaren eragina ikusi eta aztertzeke. Horretan hasi nintzen, ilargiari begira hasi nintzen enborrak biltzen baina gero desbideratu egin nintzen. Ikusi bainuen, enborrak karkomarekin izorratzen hasten zirela. Orduan, tratamendu bat eman nien. Beraz, ilargiaren eraginak aztertu beharrean, bilduma egiteari ekin nion. Euskal Herrian dauden zuhaitz guztiak biltzea izan da nire asmoa. Euskal Herriko zazpi probintzietatik ekarritako enborrak daude.



Imanol Artola basozaina da.

173 enbor bildu dituzu. Bakarren bat jasotzeko gelditu al zaizu?

Erribera alde horretara joanez gero, agian, bakarren bat edo beste ekarriko nuke. Lorategietan ere sartuko banintz, mila ere egin daitezke. Honek ez dauka bukaerarik.

Bildumaren helburua zein da?

Zuhaitza edo egurra kanpotik gehiago ezagutzen dugu, baina zurezko altzariren bat ikusten dugunean galdu egiten gara. Egurra barrutik ezagutzeko aukera ematen du bildumak. Bakoitzak bere betak ditu, bere kolorea, bere usaina... Usainarekin izugarrizko ezustekoa eraman dut. Guztiek usain ezberdina daukate. Usainik ez duenik ere badago.

Enbor bakoitza bere txarteltxoarekin dago.

Izen zientifikoa, bere izena euskaraz eta gazteleraz, non

bota den eta zein ilargirekin bota den azaltzen da. Egurra enbor ezaugarriak ere azaltzen dira eta azkenik, egur bakoitzarekin zer egiten den.

Zein berezitasun du bilduma honek?

Bilduma honen berezitasuna kantitatea da. Nire ustez, ia gehienak hartuta daude. Beste berezitasun bat ere badu: egindako enborra hartu dudala. Hau da, 10-15 urteko in-

Imanol Artola:
"Enborren usainarekin izugarrizko ezustekoa eraman dut"

txaurra adibidez, zuria da, baina 100 urtekoak du berezko kolorea. Nahiko egur zaharrak hartu ditut.

Zaharrena zein da?

Haritz bat badago, eta 102 urteko zedroa ere bai. Iratitik ekarritako abetoa ere nahikoa zaharra da.

Beste bildumaren bat ba al daukazu buruan?

Hori sekretua da. Egurrarekin hasi naiz eta uste dut ez dudala sekula bukatuko.



o s k a r b i
o i n e t a k o a k

Tel. 943 88 41 04 Tel. 943 88 19 44
kale Nagusia 34 BEASAIN kale Nagusia 25 ORDIZIA



GERTU aholkularitza



txekin

ENPRESA BERRIAK SORTZEKO
DOHAINEKO AHOALKULARITZA
ETA SUBENTZIOAK

BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33

Pello Joxe Aranburuk, 'Ataungo ogibide historikoak' liburua idatzi du


"Ataungo ogibide historikoek bertako historian kultura-eragin bortitza izan dute"

Ataungo Bekaren barruan, Pello Joxe Aranburuk 'Ataungo ogibide historikoak' liburua aurkeztu berria du, Maximo Aierberen 'Ataungo kantu zaharrak' liburuarekin batera. Oraingoan, Pello Joxe Aranbururekin izan gara, bere emaitzaren ondorioak bilduz.

Izenburu bikoitzak du liburua: 'Ataungo ogibide historikoak' eta 'Ataungo ogibide historikoen edo artzaintza, nekazaritza, basogintza, burdinola, errota, erai-kuntza eta zerbitzuen kultura-razko eragin nagusia bertako etnosaren historian, XIV-XX mendeetan'.

"Liburu honekin frogatu nahi izan dut ogibide horiek beldurgarritzko eragina dutela gaur egun ere, ataundarrren bizitzan. Joxe Martin Apalategi egiten ari den azterketa antropologikoan hobeto ikusiko da. Baina gaur egungo Ataungo modernoan egundoko eragina du joandako 7-8 mendeetako kultura materialak. Oinarri kultural sendo hori oraindik ere betebetean ikusten da", dio Pello Joxe Aranburuk.

1997an hasi zen Aranburu Ataun San Gregorioko Olea burdinola aztertzen, enkar-guz. Jakin-mina piztu eta azterketa lanean hasi zen Pello Joxe Aranburu. Emaizta, kalendar dago. 1200-1900 urte bitarteko azterketa egin du. Lau iturri nagusi erabili ditu



Lazkaoko jaunei buruzko liburua laster kalean

'Ataungo ogibide historikoak' liburuan bertan Lazkaoko jaunei buruzko historia sartzeko asmoa zuen Pello Joxe Aranburu etnohistoriagileak, Ataunen historian Lazkaoko jaunek eragin handia izan baitzuten. Lodiegia zela eta, bi liburutan banatzea erabaki zuten Ataungo eta Lazkaoko udalek. Batez ere Lazkaoko Maria "atsoaren", Okendoren emaztearen, historia nabarmendu nahi izan du Aranburuk, "bera izan zen, Lazkaoko Parrokia, Jauregia eta bi komentuek egin zituen. Fundatzaile handia. Azkenean Maria moja sartu zen".

Aranburuk azterlanerako. Nagusienak bi: Tolosako Artxibategia eta 'Anuario de euskofloklora', bertan On Juan Arin apaizaren lan ugari biltzen baita. Juan Arinek esaterako, Ataungo toponimia eta eraikuntzen arloan azterlan handia egin zuen. Guztiak ere Pello Joxek bere liburura ekarri ditu.

Hiru atal nagusi

Liburuak hiru atal nagusi ditu. Lehenengoan, Ataun gizatidea sortzen hasi zen momentura arteko tartea biltzen da. Bigarrenean, bost multzo handitan banatutako ogibideak: Ataungo artzain eta nekazariak, Ataungo burdinola,

errota eta errotariak, Ataungo eraikuntza, basogintza eta zerbitzuak (notaritza, osakidetza eta irakaskuntza). Hirugarren atal handian, tesia egiten du Pello Joxe Aranburuk.

Bitxikeriak

Bitxikeria ugari aurkitu ditu etnohistoriagileak arakatutako dokumentu ezberdinetan. Esate baterako, Ataun Goierriko herririk handiena zen, 3.000 biztanle ingurukoa... Bi notaria bazituen, oraindik ere auzo zenean.

1584an, kirurgilari bat zegoen Ataunen. "Bera hil zenean, inbentarioa herriko apaizak egin zuen eta bertan azaltzen da mediku horrek zi-

"Oso pentsaera aurreratua egon izan da Ataunen. Gustura aztertuko nituzke Ataungo pentsalariak, idazleak, kronikariak"

tuen liburu eta tresnak. XVI. mendean operazioak egiten zirela esan nahi du. Garai hartako punta-puntako liburuak zituen".

Ataunek baso asko izan du eta du oraindik ere. Bertako egurra, Pasaiera eta Soraluezera eramaten zuten, ontzigitzarako eta armagintzarako, Erregearen zerbitzurako.

Teileriak ere ugariak ziren Ataunen. Teilak eta adreiluak egiten erakustera Iparraldetik etorri omen ziren.

Pentsaera aurrerakoa

Pello Joxe Aranburuk adierazi digunez, "Ataunek beste herri gutxi bezala, bere bizimodua, aztertuta du. Suerte handia izan dute ataundarrek Joxe Miel Barandiaran eta Juan Arin izan dituztelako. Oso pentsaera aurreratua egon izan da beti Ataunen. Gustura aztertuko nituzke Ataungo pentsalariak, idazleak, kronikariak. Ataunen apaiz eta fraile asko izan dira, etxe bakoitzean ia bat".

Ondorioen bilduma

Testu-ingurua

Ataun Etnosaren testu-ingurua ondorioztatu dudanean, bere izena eta izana, hau da, kokapen geografikoa, auzo eta udalerri izatea lorpenaren bilakaera historikoa agertu dut. Bilakaera hartan Lazkaoko jaunek Goierriin jokatu zuten papera eta batez ere Ataun Etnosarekin azpimarratu dut. Dena dela, niretzat bertako ogibide historikoek eragin nabarmenagoa izan zuten Ataungo ziklo kulturaletan. (...) Gainera, nire analisi, beraz ondorioak ere, Ataungo errealtatera mugatuak eta ikuspegi partzialagoak erabili ditut, esaterako, ataundarren usteak eta artea sakon-sakonean aztertzea ez naiz heldu, bai ordea, bere kultura materiala, erakunde sozial eta politikoak eta toponimia. Zortzi mendeetan herri baten historia ikuspegi zabalez hartu ondoren, Ataun Etnosaren XX. mendeko kultura bere bilakaera historikoren ondorio bat da:

1200-1399 urteetan,

batez ere Ataun Gaztelua, Nafarroako monarkiaren menpe egon zen eta Lazkaoko jaunaren eraso eta triskantzetatik aldendu ziren ataundarrak. San Martin parrokia fundatu, bere inguruan, Agauntza ibarrean lehen baserriak eraiki, nekazaritzari hasiera eman eta artzainek goimendietan, batipat Aralarren, uda pasatzen zuten.

1399-1615 urteetan,


Gaztelako erregeak aurreko zikloan sortutako hiribilduarekin, besteak beste, Ordiziarekin hitzarmen kolektiboa sinatu zuen Ataun kolazioak, bestalde, ahaide nagusiek botere politikoak galtzen ari zi-

"Ataun auzoak notario eta kirurgilariaren zerbitzuak antolatu zituen"

ren garaian, Lazkaoko jaunarekin burdinola, errota eta mendiekiko harreman eta kontzertuak mantendu zituzten ataundarrek. Larruntzako burdinola eraiki, ikazkintza edo lantegiak arautu zituen. Gerora baserri bihurtuko ziren mendiko saletxeak eraiki eta udalerri izatera iritsi gabeko Ataun auzoak notario eta kirurgilariaren zerbitzuak antolatu zituen.

1615-1900 urteetan,

udalerri izatea lortuz gero, batipat mendi eta landa-eremuetan populaketa sakabanutua bultzatuz, beheko ibarrean kaletxeak eraiki ziren. Horrela, 1860an, Goierriko herri populatuena, 2.919 biztanle eta bi notario egoiliar izatera iritsi zen. Lehendik, dozena bat auzo eta parrokia zuen herria, XVIII. mendearen azken aldera, hiru parrokiatan zatitu zen. Aipatu populaketak eta hazkunde demografikoak ogibide berriak sortarazi zituen, hara nola, errotari, errementari, arotz, hargin, itzain, ehule, tabernari, dendari, barbero, botikario, eta abar. Gainera, Berraoko galtzada zaharra, XIX. mendean, Umarki-Lizarrusti errepideak ordeztu zuen. Zikloen bilduma hau burutzeko zera esan behar dut: nire azterketa honetan, XIX. mendean, Euskal Herrian izanda-



ko gerrateen ondorioak eta isladak ere agertu dira Ataunen, adibidez, herri ondarearen salmentak egitean. Mende berean, Ataun nekazal herriaren gainbehera hasi zen neurrian, Herrialde eta Eskualdearen industrializazioa etorri zen.

Etnosa

Joxe Azurmendi pentsalari zegamarrak bere jaioterriko aldizkarian XXI. mende hasierako 'Zegamako artzaintza' izenekoan, iazko apirilean idatzi zuen artikuluan oinarrituz, nire liburu amaituko dut. "Artzaintza ez da lanbide eta bizimodu bat bakarrik, kultura modu bat, izaera edo gizakera bat". Artikulu horretako ideiak erabiliz, zegamar idazlearen antzera ikuspegi sakonez begiratu gero, gaurko ataundarren barrua artzaintzak eta baserriak egin dutela konturatu naiz. Barrubarrutik denok gara nolabait artzain, guztiok artzaintzan ditugu gure erro kulturalak.

Lehen euskal ehiztari batzuk Ataun aldeko Aralarren finkatu, kobazuloetan bizi, abereak hezi, lurra landu, txabolak (etxabolak), baserriak (basoko herriak) eraikiz ataundar bilakatu ziren. "Ehiztariak behar ez zuen, baina artzaintzak eta etxeak galdegiten duen hainbat tresnaren eskulangintza eta artea garatu da poliki-poliki, harritzkoa lehenengo, zurezko eta buztinezkoa gero, metallezkoa geroago". Gaur oraindik indarrean dirauen larre komunalak arautu, trashumantziako bideak errepide bilakatu dituzte. Ataungo artzain-baserritar zaharrek mundu berri bat, kultura berri bat sortuz, ohiturak eta mentalitateak aldarazi dituzte. Lehengo ehiztaria eta artzain trashumantea herri tinko batean baserritar abertzale bihurtu da. Lurra eta eguraldiaren baitan egotetik aske bizi izatera heldu da, ataundar moderno batentzat eguneroko lana sakratua izango da. (...)

"Lehengo ehiztaria eta artzain trashumantea herri tinko batean baserritar abertzale bihurtu da"

Giza eta Gizarte Zientzien batxilergoko gai batzutan izango da aukera Ikasketak ingelesez Txindoki-Alkartasunan

Esperientzia berria jarriko da abian Beasaingo Txindoki-Alkartasuna institutuan 2003-04 ikasturtean; hain zuzen ere, Giza eta Gizarte Zientzien batxilergoan jakintzagai batzuk (Historia Garaikidea, Ekonomia eta Enpresa Antolakuntza, Etika eta Tutoretza) ingelesez ikasiko ditu ikasle talde batek.

Berrikuntza Hezkuntza Sailak ingelesaren ezagutza eta erabilera bultzatzeko asmoz egin duen deialdi baten baitan kokatzen da. Deialdian, nagusiki, hiru baldintza jartzen ziren: 1, hizkuntzen erabileraren inguruan proiektua izatea; 2, jakintzagaiak ingelesez eman ahal izateko maila egokia duten 15 ikasle baino gehiago izatea; 3, ingelesez jakintzagaiak eman ditzaketen irakasleak izatea.

Hasteko, kontuiez agazuzu orain arteko egoera hizkuntza ereduak dagokienez?

Orain arte, batxilergoetan, bi eredu ezagutu ditugu: bat, A eredu, jakintzagaiak, Euskal Hizkuntza eta Literatura izan ezik, gaztelaniaz ematen dira; bestea, D eredu, jakintzagaiak, Lengua y Literatura Española izan ezik, euskaraz ematen dira. Gainera, bi ereduetan atzerriko hizkuntza



Ikasketak ingelesez egiteko aukera izango duten ikasle taldea.

ere, ingelesa kasu gehienetan, ematen da. Txindoki-Alkartasuna BHIk, 1996-97 urteaz geroztik, D ereduaren ematen ditu ikasketak guztiak.

Zer da batxilergo eleanitza?

Derrigorrezko etapetan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn, euskaraz eta gaztelaniaz gaitasun egokia lortu ondoren, ingelesari bultzada nabarmena emateko helburua du batxilergo eleanitzak. Horretarako, jakintzagai soil izateak, beste jakintzagai batzuk erakusteko tresna bilakatuko da; hau da, batxilergoaren 1go eta 2. mailan zenbait jakintzagai ingelesez emango dira.

Nolako antolakuntza pentsatu duzue bi ikasturteetarako?

Lehenengo ikasturtean ingelesez emango diren jakintzagaiak, Ingelesaz gain, Historia Garaikidea, Etika eta Tutoretza izango dira. Bigarre-

nean, berriz, Ingelesaz gain, Ekonomia eta Enpresa Antolakuntza eta Tutoretza.

Nori zuzendua dago?

Lehenengo saio honetan, Giza eta Gizarte Zientzien batxilergoa egingo duten lehenengo mailako ikasleek, jakintzagaiak ingelesez hartu ahal izateko maila egokia dutenei zuzendua dago.

Nork egin dezake batxilergo berri hau?

Interesatuta egoteaz gain, euskararen eta ingelesaren azterketa gaintitu behar izan dute. Euskararen kasuan, bagenekien gutxieneko maila hori bazutela, baina ingelesaren kasuan bermatu egin behar zen; bestela, ezinezkoa gertatuko baitzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua behar adinako eraginkortasunez gauzatzea.

Eta jakintzagai ezberdinak eman go dituzten irakasleek buruz?

Egitasmoan parte hartuko duten irakasleek, bakoitza bere espezialitatean lizentziatua izateaz gain, ingeleseko titulazioa ere eskatu zaie.

Zein da helburu nagusia?

Gure asmo nagusia Goierriko ikasleek eta euren familiek aukera berri bat eskaintzea da, euren ikasketen herena ingelesez egiteko aukera emango diona. Modu honetara, unibertsitateko edota lanbide heziketako goi-mailako ikasketak egiten hasi aurretik 3. hizkuntza menperatzeko aukera eman nahi zaie. Nabarmen-tzekoa da aukera bikaina dela gure neska-mutilentzat, aha-lerin handiegirik gabe, prozesu arrunt baten baitan, etorkizunean izango dituzten beharrei modu egokiagoan erantzuteko aukera emango diona, guztiok ezaguna baitugu nolako garrantzia duen gaur egun hizkuntzak ezagutzeak gizarte eta ekonomia alorreko maila gehientsuen-tan.

Beste batxilergoetara zabaltzeko asmorik baduzue?

Hasiera honetan modalitate bakar batean eskaini badugu ere, argi dugu geroz eta indar handiagoa hartzen ari den il-doa dela. Beraz, aha-lerin guztiak egingo ditugu dato-rrin urtean batxilergo zienti-fiko-teknologikora zabaltze-ko.

izal
IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA
☎ 943 187 049 - 943 187 045
Ondramuño baserria IDIAZABAL

Goierritarra etxean jasotzeko laguntzaile txartela
Txartel hau betetzeko duzun 12 euro kobratuko zabaldu postu gasteak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: **Tfnoa.:** **NAN:**

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia



Aztiria festatarako prest

Uztailean bi auzoetako jaiak ospatuko dira herrian, Aztirikoak Santa Marinatan eta Alegikoak Madalena egunaren bueltan. Santamañetarako prestatu dira dagoeneko aztiriarrak, egitarau mardula atondu du Aztiri-bat elkarteak Gabiriako eta Legazpiko udalen laguntzarekin. Hona festetako ekintza sorta:

Uztailak 18, ostirala:

Santa Marina eguna:

11:00etan: ezkil joaldia eta suziriak festei hasiera emanez.

12:00etan: meza nagusia.

Ondoren, Olarte anaaien trikitixa.

Arratsalde osoan haur eta gaztetxoentzat jolasak.

19:00etan: bola eta toka lehiaketak auzotarrentzat.

21:00etan: auzo afaria Aztiri erretegiaren, "Olarate anaia" trikitilariak girotuta.


Uztailak 19, larunbata

17:00etan: Gabiria eta Aztiria arteko futbol partida gaztetxoentzat.

18:00etan: VIII. patata tortila txapelketa. Ondoren tortila, txistorra eta ardoa banatuko dira.

18:00etan: bola eta toka lehiaketen hasiera.

Arratsalde-gauean: Epelde, Larrañaga eta Narbaizarekin erromeria.



Uztailak 20, igandea

10:00etan: goiz eresia Gabiriako txistulariekin.

10:30ean: udal agintariei ongietorria.

11:00etan: meza nagusia.

12:00etan: Motxorrotik Aztirira lehenengo txirrindu igotera auzotar eta herritarrentzat.

12:30ean: 'Goruntz' taldearen dantza saioa.

13:00etan: Bertsolariak, Iñigo Izagirre (Itziar) eta Joxe Anjel Aranburu (Hernani).

13:30ean: Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak.

17:30ean: Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak.

18:00etan: Herri kirol jaialdia: - Ahari jokoak. - Motozerraz egur irudiak egitea. - Aimar Irigoien harrijaso-tzailea.

Ondoren bertsolariak eta bola lehiaketa.

Ilunabarrean Ansorregi eta Larrañaga.

Udal batzordeen osaketa

Maiatzaren 25ean aukeratutako ordezkariak pasa den hilaren 14an, larunbata, erabaki zuten datozen lau urteetarako Udalaren egitura. Hauexek dira sortu diren batzordeak eta berorien arduradunak.

Alkatea: Xabier Murua.

Alkateordea eta diruzaina: Ainhoa Aizpuru.

Batzordeak:

Kontu batzorde berezia (hazienda, aurrekontuak eta ondarea): Ainhoa Aizpuru, Josune Agirre eta Txomin Bidegain.

Kultura, hezkuntza, festak eta gizarte ongizatea: Ainhoa Aizpuru, Josune Agirre eta Txomin Bidegain.

Hirigintza, nekazaritza, ingurumena eta udal zerbitzuak: Nikolas Igartzabal, Iñaki Etxezarreta eta Iñigo Izagirre.

Erakundeetako ordezkariak:

Sasieta: Iñigo Izagirre.

Gipuzkoako Ur Kontsultazioa: Iñaki Etxezarreta.

Tolosako hiltzgia: Txomin Bidegain.

Goimen: Nikolas Igartzabal.

Escola kontseilua: Ainhoa Aizpuru.

Goieki: Josune Agirre.

Eudel: Josune Agirre

Azpiegitura lanak

Dagoeneko udal berria lanean hasia da, herri bideak eta zenbait baserriarako sarrerak asfaltatu dira. Hurrengo azpiegitura lana ere mamitzen doa, futbol zelai inguruko urbanizazioarena, alegia, eta horretarako hainbat proposamen aztertzen ari dira.

Plastiko bilketaz oharra

Belar bolen plastikoak ez dira udazkenara arte berriz bilduko eta orduan jakinarazi arte bilguneetara ez ateratzeko oharra egin du udalak.

Aimar Maiz

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behea ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

txekin

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Asegurua
- Inmueble agentzia



GEURIA
ALUMINIO AROZTEGIA

Zubi termiko hausturak
leihoak
Bulego eta bainuetako
manparak
Ateak, erakusleihoak eta
balkoiak

943 880 162
Iñauti Ind. 14
OLABERRIA

'Berria'-ren alde

Segurak akzioetan erosi beharreko 4.850 euroak ondo gairituak dira dagoeneko. Oraindik ere akzio erostunak azaltzen ari dira. Egunkari berriaren aldeko batzordeak akzio erosle guztiak eskertu nahi ditu.

Labur-labur

● **Atsedeen itxita.** Gabonetatik San Joanak arte iraun du zabalik Atsedenek tabernak. Joxe Mari Lardizabalek lana uztea erabaki du. Jubilatuen tabernan lan egingo duen norbait behar dute. Informazio gehiagorako bertako ardura-dunengana jo.

● **Jubilatuaren irteera.** Uztailaren 17an Amurriora. Artzeniega ikusi, txakolindegia bat bixitatu, Amurrioren bazkaldu eta Gasteizera arratsaldean. Izen ematea, uztailak 10-11.

● **Argazki erakusketa Eloorripen.** 'Tajai, Indonesiaren menpe dagoen estatutik gabeko herriaren ikuspegiak'. Egilea: Rafael Berasategi.

● **Udako aisialdia.** 2tik 12 urte arteko 48 haur hasi dira 5 taldetan banatuta. Begiraleak, Nagore Gonzalez, Elisa Ferrreira, Izaro Tejedos, Itxaro Hombre, Eskaine Legorburu, Alaitz Etxeberria, Nagore Murgiondo eta Estitxu Telleria dira.

● **Helduentzat uretako soinketa.** Uztailaren zehar, astearte eta ostegunetan 11:00etatik 12:00etara Oxiña igerilekuan. Taldea osaturik dago. Nahi duenak izena udaletxean eman behar du. Irakaslea: Sabina Zivec.

● **Mutiloako festetako bola.** Lehen postua Martxeliño Agirrek eskuratu zuen.

● **Denden udako ordutegia.** Goizez ohikoa eta arratsaldean, 6,30etatik 8,30etara.

Sanjoanetako herritar sarituak

2. balkoi eta atari-aurre lehiaketa

Jakoba Errekondok eta Xabier Galdos adituek osatutako epaimahaiak aurrerapauso ikusgarria nabarmendu du balkoi eta atarietan iaztik hona. Hori dela eta, sarituz gain aipamen berezi mordoska emanez, herria dotoretzeko txapelketa honen balioa ere azpimarratu dute. Hona euren usteak:

● Atari aurreak:

1. **saria:** Aldatxe baserria. Leku aldapatsu eta zailan, izugarrizko dotoreziak moldatu dira elementu arkitektonikoak, landareak eta baratza.

2. **saria:** Andraitz, 1. Moda bereziei jarraitu gabe, kalitate ederreko lorategia.

Aipamen bereziak: Mendotze zaharreko baserriko lorategia; Aizkoeta berriko etxe buelta; Etxeberri ingurua; Zerrain Sagastiko landare berezien konbinazioa; Malkorra-ko etxe aurrera; Aldata barrenako denboraldiko landareak; Lexakako landare bitxiak; Madalena handiko gaurko eta betiko landareak; Etxezuriko etxe buelta; San Andres aurreko fruitu arbola eta landareak eta Igeltserone atzealdean, baserri tankerako giroketa.

● Balkoiak:

1. **saria:** Jauregi etxea. Fatxada osoaren kontzeptuaren adibidea. Denboraldiko landare-



Goiko argazkian atari aurreko dotoreenaren saria jaso duen Aldatxe baserria. Behekoan, 'Robin Zurrut' koadrilakoak garaipena ospatzen intruso batzuekin.

ak, iraunkorrak, koloretsuak eta berdeak ondo nahasirik.

2. **saria:** Lardizabal, 17-3. (Peña Iparragirre). Ia bazterturik dagoen landareetako bat erabiltzeagatik (krabelina).

Aipamen bereziak: Nagusia, 15, fatxada osoaren konbina-

zioa; Nagusia 30, fatxadari ondo egokitutako loreak; Zurbano 3-5, 1. solairuko loreak; Zurbano, 15-1 goa; Lardizabal 9, 4. solairua; Lardizabal kaleko, udaletxeko lorategi aurreko beheko solairua.

Joseba Telleria

Gainerakoak

Plater hausketa: Xabier Alustiza.

Arrantza txapelketa: Borja Gereñu (7 amuarrain).

Herrialde mailako bola: Antonio Agirre.

Korpus eguneko herri toka: Jon Ander Intxausti.

III. futbito txapelketa: Robin Zurrut koadrila.

San Joan bigarreneko herri toka: gizonezkoetan Luli Telleria eta emakumezkoetan Puri Oiarbide.

Atsedenek probak: Tokan Gregorio Artola; botean, Bittori Telleria; igelean, Joxe Urbizu.

Bielorrusiarra gure artean

Helburua, bertako gune kutsatuetatik denboraldi batez ateratzea

Chernobilgo zentral nuklearraren istripuak ondorio lazarri amaiezinak ditu. Besteak beste, inguruko biztanlerian sortzen dituen hainbat osasun arazo. ONG batek bultzatuta bertako hainbat gazte, gune kutsatuetatik ateratzen dituzte urtero denboraldi batez. Ateraldi hauek, bertako negu gogorra gaixotasunetatik babesteko izugarri laguntzen die Livdimila Smuraha (Luda deitzen diote), Lurdes Ke-

rejeta, Peio Aizpeolea eta Garazi Aizpeolearen etxean ari da 40 egun pasatzen. Bere taldekideak, Agurainen, Idiazabalen eta Zegaman daude. Ludak 13 urte ditu, 14 beteko ditu uztailaren 31n. Ekainaren 21etik dago gure artean eta uztailaren 31 arte egongo da. Bielorrusiako iparraldekoa da. Aurreko urtean Gasteizen egona denez, erdara ulertzen du. Orain euskaraz ere ari da zerbait ikasten. "Ludak, suertea izan du. Ez, ordea, gune ez kutsatutara etortzeko aukerarik izan ez dutenek. Ea datorren urterako beste familiaren batzuk ere animatzen diren", dio Lurdes Kerejetak.



Udako kirola

Urteroko moduan, uztailera-ko kirol agenda betea antolatu dute Kiroldegiak eta Udalak. Ekainaren bukaeran hasita, 5 eta 13 urte bitarteko 70 neska-mutiko ari dira parte hartzen Uda kanpaina ekimenean. Goizero bi ordu ematen dituzte, zazpi begiralerekin, kirola eta bestelako jolasak tartekatuz.

Tenis txapelketaren 7. edizioa astelehenean hasi zen.

12 lagunek eman dute izena lehiaketan. Partidak, astelehen, asteazken eta ostiraletan jokatuko dituzte 19:00etan Kiroldegi alboko pistan. Finala uztailaren 22an, asteartea, izango da.

Udako jarduna eta ikasturte osokoa, uztailaren 24an, osteguna, bukatuko da. Egun horretan triatlaiaren 8. edizioa jokatuko da. Parte hartu nahi duenak uztailaren 21



Kirol Elkartea

200 lagun bildu ziren Kirol Elkartearen 25. urteurrena ospatzeko ekainaren 21ean egindako bazkarian. Azken urteetan Futbol taldeekin harremana izan duten herritarrek, kanpotarrak eta kirol arloko ordezkariak izan ziren bertan, besteak beste Laurentzi Gana Euskadiko Futbol Federazioko presidentea.

Aurretik, Idiazabalgo Kirol Elkartearen historia biltzen duen liburua aurkeztu zuten. Unai Azurmendik, Anttonio Berasategik eta Jesus Urteagak eman zuten azken hilabeteetan egindako lanaren berri. Liburua Izparren erosi liteke 6 euroren truke.

baino lehen eman behar du izena Kiroldegian.

Uztailaren 15etik 30era, arratsaldetan, 1etik 5etara irekiko dute.

KZ gunea

KZ guneak ordutegi berria izango du uztaillearen. Hilaren 14ra arte goizeko 8etatik 12etara egongo da zabalik.

Uztailaren 15etik 21era nagusientzako 10 orduko ikastaroa emango dute, 15:00etatik 17:00etara.

Xabier Urteaga

KZ Gunea martxan

Uztaillearen irekiko da KZ Gunea. Interneta erabiltzen ikasteko aukera emango du KZ Guneak. Liburutegian prestatu da behar den azpiegitura guztia.

KZ Guneak bi zerbitzu eskainiko ditu: batetik, internet ikastaroak, herritar guztientzat; eta bestetik, internetean nabigatu nahi dutenentzako ordenagailuak.

Uztaillearen goizez izango dira ikastaroak eta abuztuaren, arratsalde. Abuztuaren itxita egongo da.

Informazio gehiago jaso nahi duenak edo ikastarotik parte hartzeko izena eman nahi duenak udal-etxera deitu dezala.

Zinea

Ekainak 20: 'El hombre que leía novelas de amor',

Uztailak 5: Errepetizio festak

Bihar, larunbata, uztailak 5, festa eguna izango da oraindik ere. Errepetizio eguna izango da.

Arratsaldeko 6etan, sega apustua izango da, Odio aldeko zelaletan: Bekotxe eta Xefe, Iparre eta Zabaloren aurka.

Gaueko 9etan afaria izango da, ardo partiketa ren ondoren.

Afal ondoren, azkenik, Trakets taldearekin dantzaldia izango da, mozzorro festarekin batera. Ezusteko ederrak ere izango omen dira.

Espiritu zaharra berrituta

Badira berriak eta berriak, horietako batzuk berriemalea gertuagotik ukitzen dutenak eta berezi bihurtzen direnak. Horrelakoxea da jarraian dakarkizuedan berria. 44 urtez Aitzkoate Kultur Elkartearen egoitza izan den lokalaren atea betirako itxi eta txoko berriarenak ireki baitziren joan den igandean, San Pedro egunez. Horren aitzakian, Paskual iturriren altzoan hazi ginenok, eta noski, bazkide eta auzotarrek ere, garai bateko San Pedro eguneko ospakizunak biziberritzeko aukera izan genuen. Garai batean bezala, eltxetxu-jokoan eta koskol bilketan aritu ziren haurrak. Hildako bazkideak gogoratuz meza nagusia entzun ostean, musika-eskolako trikitilarien doinuak lagun, jende multzo ederra inguratu zen elkartearen egoitza zaharrean azkenekotz salda beroa hartu eta Jon Azpillaga eta Jon Lopategi bertsolarien saioa entzuter. Berezi hunkigarria izan zen duela 39 urte, lehendabizikotz, bertsoak botatzera igo ziren balkoi beretik Azpillaga eta Lopategi bertsotan ikustea, orduan bezalaxe, Joxe Rezola erdian. Izan ere, Joxe Rezolak hala eskaturik etorri ziren bi bertsolariok lehendabiziko aldiz 1964an, San Pedro egunez,

Ataungo txoko honetara. Hurrezkero makina bat egun eder pasatuak zituztela Aitzkoaten eta horiek izan zituzten gogoan saioan zehar. Egun horiek izango zituen gogoan, ziurrenik, Joxe Sanpedrok ere. Bera izan baitzen egoitza zaharraren atea betirako ixtearen arduraduna. Esan behar da, Joxe Sanpedro dela, Imanol Sanpedro, Joxe Imaz, Antton Kerejeta eta Peio Kerejetarekin batean, egun bazkide izaten jarraitzen duen hasierako sozio fundatzailea. Bateko atea itxi eta bestearenak ireki asmoz, hurbildu ziren gero Zelaietako azpian Aitzkoatek izango duen egoitza berrira, ospakizunarekin bertan jarraitzeko asmoz. Bertan, Joxe Imazek elkartearen armarrria kortinapetik agertarazi zuen, hiru bazkidek, Antton Etxeberria, Jexux Mari Munduate eta Amaia del Valek, baita ere bazkide den Jon Goikoetxearen txistuaren gidaritzapean aureskua dantzatzaren zuten bitartean. Azpillaga eta Lopategik ere ongi etorria eman nahi izan zioten egoitza berriari eta jarraian, bazkari eder bat eginez eman zioten estreñoa bertan bildu zirenek. Usadio zaharrari jarraituz, eta egunari amaiera emateko, aizkolariak. Lauztiturrirako



Goiko argazkia Paskual iturrin hartua da eta bertan agertzen direnak Aitzkoate elkarte bazkide eta bazkide fundatzaileak dira. Beheko argazkia, Aitzkoate elkarteak San Pedro egunez antolatzen zituen ospakizunen barne plazatik elkartera egiten zen prozesio edo ibilbideari dagokiona da.

Joxe Aierbe aizkoran eta Lopetxe Jabi korrika. Guk gure aldetik, elkartearen 100 bazkideei txoko berria osasu-

narekin urratzeko eta gozatzeko opatuz amaitu nahi gennituzke lerrook.

Agurtzane Bikuña

Kontuz lapurrekin!

Irakurle eta herritar batek hala eskatuta dakarkizuet berri edo ohar hau. Izan ere azken asteotan etxe-atari bat baino gehiagotatik eraman omen dituzte loreen tarroak, butano botilak... Beraz, kontuz ibili beharko dugu hemendik aurrera Ataunen ere, nahiz eta askotan lapurrak gutxien uste dugunak izan daitezkeen!

ATAUN SAN MARTIN

ADI! Bosgarren solairuko azken etxebizitzak salgai. Domotika eta aspirazio zentralaren aurre instalakuntzarekin. **Goierriko prezio-kalitate erlaziorik hoberena!**

DEI EZAZU 943 40 40 33

ZUZENKI
AHOLKULARITZA

**Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa**

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzaren salmenta:

**Legorreta
Beasain
Orendain**

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta: zuzenki@euskalnet.net

Elosgi, 16 LAZKAO

Mendi irteera, Hiru Errege Mahaiara

Kultur Elkartek antolatuta uztailearen 12-13ko asteburuan mendi irteera izango da Hiru Erregeen Mahaia, 2428m. mendi tontorra.

Asteburu honetako egitaraua: larunbat goizean garaiz herriko plazatik irten eta autobusez Linzara joango da, handik Hiru Erregeen Mahaiara igo eta gero Belaguako Asolaze aterpera joateko. Hemen izango da ostatua. Igan-de goizean, hiru behien tributoa ikustera joango da, San Martingo Harrira, autobusez eta bazkalondoan herrira itzuli-ko da.

Irteera honen kostua 50 euro da, autobusa, lolekua eta gosaria prezioan barne dira, afaria eta bazkaria norbere kontura. Joan nahi duenak Mandioa dendan izena eman behar du lehenbailehen.

Ostatu Jatetxea

Ekainaren 30a ezkerreko Ostatu jatetxea itxita dugu, azken lau urte hauetan bertako zuzendaritza eraman duten Edurne eta Mari Karmen Urbizu ahizpek, beraien kontratua bukatu ondoren bizibidez aldatzea erabaki baitute, Zorte on bizimodu berrian!

Ostatua, berriro ere alokairuan eman nahi da. Etxe honen prestakuntzak: taberna, bi jangela, bat 50 lagunentzat eta bestea 25entzat eta oso garrantzitsua den etxe bizitza dira. Beraz norbait interesaturik balego jatetxe honen kudeaketan zuzendu dadila Zeraingo Udalera tfno. 943801724, bertan emango zaie baldintzen berri.

San Joan sua

San joan bezperan, iluntzeko 8,30ak aldera txistulariek San Joan doinua jotzen zuten bi-tartean eta kanpandorreko

kanpai hotsak jendeari dei-eginez, San Joan sua piztu zen. Ondoren herriko haurrak bere inguruan dantza egin zu-ten eta azkenerako bertara bildu zen jende gehienak ere bai.

Oso giro ederrean joan zen iluntzea izan ere jende mor-doska ederra bildu zen ber-tan. Udalak jarri zuen mokau-txoarekin amaiera eman zi-tzaion festari.

Mari Flor Mendizabal

Lierniko erromeria, uztailearen 13an

Aurten ere iritsi da ormaizte-giarrok Liernira erromerian joateko eguna. Ohi bezala, uztailearen bigarren igandean izango da, hau da, uztailearen 13an. Egitarau zabala presta-tu da aurtengorako. Jarraian dituzue ekitaldiak:

11:00etan: Salda beroa es-kainiko zaie iristen direnei.

11:30ean: Liernira igoera mendiz.

12:30ean: Meza nagusia Lierniko amaren ermitan.

13:15ean: Haurrentzako jo-koak.

14:30ean: Bazkari herrikoia.

16:30ean: Detraka animazio taldearen ikuskizuna. Hau-rrak ikuskizuneko partaide



izango dira eta zuzeneko mu-sikaz animaturiko giroa izan-go da.

Ondoren: Herritarren arteko jokoak.

Egunean zehar, herriko tri-kitilariak alaituriko giroaz gozatzeko aukera izango da.

Aitziber Murua



kutxa

gizarte ekintza

Kiroldegiko bazkide egiteko aukera

Datorren ekainaren 30ean Joemiel Barandiaran udal kiroldegiko hainbat bazkideri bere bazkidetza amaitzen zaie eta lerro hauen bidez jakinarazi nahi da orain dela aldaketaren bat egiteko aukera ederra. Hiru era desberdin aurki ditzakezue; urtekoa sei hilabetekoa edo hiru hilabetekoa.

Urteko prezioak honakoak dira; banakako heldua 70,17 euro, banakako gaztea 35,10, banako jubilatua edo pentsionista 52,73, familiarra 98,42, eta jubilatua edo pentsionista familiarra 73,78 eurotakoa. Beste bono mota batzuk ere badaude igerilekuan bakarrik esaterako.

Hala ere informazio gehiago jakin izanez gero kiroldegian argituko zaizue. Kontu korrontetik ordaintzen ari zaretenoi esan, uztailaren hasieran pasako zaizuela.

Maizpideko ikastaroak

Lazkao XXIX. udako euskal ikastaroak dagoeneko martxan jarriak dira. Atzo uztailak 3, Joxe M. Karrere ipuin-kontalaria izan zen gaueko 10etan Euskadi plazan.

Uztailaren 8an 'Kutsidazu bidea Ixabel' antzerki saioa izango da toki berean baina 22:30etan.

Uztailaren 10ean Aitor Marcilla magoa izango da 21:00tik aurrera.

Bertso-jaialdia ere izango da Goierriko bertsolari gazteen eskutik, bertan; Joxe eta Aitzol Munduate, Iban Ur-dangarin, Alaitz Sarasola,



Iker Zubeldia eta Ekaitz Goikoetxea izango ditugu. Gai jartzaile bezala Jokin Murua. **Uztailaren 15**, asteartea, izango da saio hau, Euskadi plazan gaueko 22:00etan.

Pantxoa eta Peioren eskutik kantaldia ere izango da **uztailaren 17an**, ostegun gauean, gaueko 10etan.

Hilabete honetako azken ekitaldia Drindots musika taldeak egingo du. Hau **uztailaren 23an**, gaueko 10etan izango da Euskadi plazan.



Antzarrak taldea Vigon

Errealak egin duen denboraldia ikusi ostean urteko balantzea egiteko momentua iritsi da. Inondik ere ez dago inongo zalan-tzarik emaitzak oso onak izan direla eta lazkaotarrek bere neurrian izan duten aukeran bikain portatu direla. Urte guztia beraien taldea gertutik jarraituz eta animatuz pasa eta gero bukaeraraino geratu zitzaizkien indarrak. Azken aurreko jardunaldian bidaia antolatuta zuten Vigora joateko eta esan autobusa jarri orduko dena berehala bete zela eta lazkaotar askok beste herri batzuetara jo behar izan zutelako bila. Argazkian ikus dezakegu zein giroan ibili ziren. Egun zoragarri bat bezala gogoratzen dute bertan izan ziren denek eta Antzarrak taldeak hori eskertu nahi du hemen joan gabe geratu ziren denek bezalaxe. Honekin batera eta oraingo emaitzekin errazagoa denez, bazkide egiteko deialdia luzatzen zaie herritar guztiei.

Azken jardunaldian ere herritar asko inguratu ziren Donostia aldera. Talde honen presidentea Eugenio Ropero Errealeko peña guztietako buruekin kontzentraturik egon zen pasa zen astebukaeran Errealaren gonbidapenez eta esperientzi oso ona izan zela dio. Hala ere ez zuen partidua galdu nahi izan eta Vigon besteekin batera hantxe egon zen.

Aitor Tello

"Bejondeigula Lazkaotarroi!"

Lazkao Egunkariaren Adiskideak (LEA) herri batzordeak zorionik beroena eta bere esker ona azaldu nahi dizue euskarazko egunkari berriaren alde zuen hondar alea jarri duen lazkaotar guztioi: bertako herritar, lantegi, denda, taberna, komertzio, ikastetxe, elkarte, erakunde eta Udala majo portatu zarete!

Hitz batean, ondo bete ditugu gure buruari jarritako helburuak eta, zilegi iruditzen zaigu lortutako emaitzen berri herri osoari ematea. Hona Lazkaon lau hilabeteen lortu duguna:

- Lehen egunetan, itxi zuten Euskaldunon Egunkariaren aldeko atxikimendu sendoa erakutsi genuen lazkaotarrok.

- Akzio-salmentari dagokionez, 16.300 euro zegoigun biltzea eta 20.500 euro bildu ditugu. Hortaz, %130a lortu dugu.

- Berria egunkariaren harpidetzei dagokienez, 95 egitea zegozigun eta, orain arte, Lazkaon,

38 harpide berri egin dira. Hauei, lehendik Euskaldunon Egunkariak zituen 22 harpidedunak gehitu behar zaizkie.

Honenbestez, Lazkaoko Egunkariaren Adiskideak herri batzordeko kideok batzordea desegitea erabaki dugu. Hemendik aurrera, Berria egunkariaren akzioak erosi nahi dituenak edo harpidedun egin nahi duenak hona jo dezake: www.ektsa.net / 635 733 385 - 635 733 386

Amaitzeko, mezu bat azpimarratu nahi dizue LEA herri batzordeak: Berria egunkaria laguntzeko modurik eraginkorrena egunero erosi eta irakurtzea dela. Hau honela, otsailaren 22an, Donostian egin zen manifestazio erraldoian pertsona ezagun batek esandakoa datorkigu gogora: "Hau da jendetza! Hauek denak Euskaldunon Egunkariaren harpidedun balira ez zuketenez itxiko itxi duten bezala". Ea, bada, orduan erakutsitako sentimendua Berriaren irakurle izateko baliagarri den.

LEA herri batzordea

Kiroldegian udako kanpaina martxan

Udako oporrekin batera, eskaintza berezia antolatu du Antzizar kiroldegia adin guztiei begira. Beasaingo Udalak, bere udal kirol erakundearen bitartez Uda 2003 kirol jardueren kanpaina antolatu du. Helburua, urteko garai berezi honetan, herritarrek eskatzen dituzten ekintza fisikoak eskaintzea da. Guztien artean, garrantzitsuenetakoak ditugu, eskolameentzako antolatu diren kiroltako udalekuak. Bi txanda desberdinetan izango dira uztailaren zehar. Adin bakoitzerako talde eta ekintza desberdinak izango dira.

1998-1999an jaioak: Udaleku Txikia (igeriketa eta psikomotrizitatea).

1995-1997an jaioak: Kirol udalekua (igeriketa, jolasak eta tenisa).

1986-1994an jaioak: Eskaintza zabalagoa izango dute. Kirol abentura: eskalada, arku eta piraguismoa. Kirol festa: igeriketa, tenisa eta jolasak.

Ikastaro bereziak ere antolatu dira: igeriketa, tenisa, piraguismoa, txiki-fitnessa, patinajea eta zaldiketa.

Gazte eta helduei zuzendurik, berriz, urtean izaten diren ikastaroez gain, zaldiketa, tenisa, piraguismoa, eskalada, arku, cardiobox eta patinajea izango dira.

Antzizar kiroldegitik jakinarazten dute, irailaren 15a bitarte kiroldegiko instalakuntzak erabili nahi dituztenek, egunean bertan egin behar dutela erreserba. Informazio gehiagorako deitu 943 887900 telefonora.

Estaligabeko igerilekuak

Irailaren amaiera bitarte irekita izango ditu ateak estaligabeko igerilekuak 12:00etatik 20:00etara. Sarrera, 18 urtez behetikoei 2 euro eta gainerakoek 4 euro ordaindu behar dute. Abonua hartuz gero merkeago iraten da. Abantaila izango dute gazte txartela dutenak eta abonua familiarra ateratzen dutenak.

Nekane Altuna

Udal berria lanean

Udal berria lanean hasia da eta dagoeneko onartu ditu sail ezberdinetako lehendakariak. Hala nola, Jon Olano Ogasuna eta Ondarea saileko buru izango da; Malu Valles Gobernaziokoa, Patxi Plazaola Hirigintzako; Arantxa Aseginolaza Kultura eta Hezkuntzako; Peio Garaialde Gazteria eta Kiroltako; Aitor Aldasoro Euskarako; Juan Martin Aldaregia Zerbitzuak eta Sustapena; Imanol Aranburu Gizarte Ongizatea eta Jose Antonio Ibaibarriaga Ingurumenekoa.

Iñaki Eskisabel Beasaingo futbol taldeko entrenatzaile berria

10 denboraldi 2.B mailan eman ondoren, iaz 3. mailara jaitsi zen Beasaingo futbol taldea. Aurten 5. postuan gelditu dira eta ia play-offetan sartzekotan egon dira. Hurrengo denboraldiari begira helburua 2.B mailara igotzea dute. Xabier Mandiola entrenatzaileak bere postua utzi egin du eta Iñaki Eskisabel izango da orain Beasaingo futbol taldearen entrenatzaile berria. 80. hamarkada bukaeratik 1995-96 denboraldi arte Beasaingo jokalaria izana eta 2001-02 denboraldian Manuel Diez Navaroren laguntzaile teknikoa izan zen Beasaingo taldean.

Arrantza egiteko baimenak Arriaran eta Lareon

Aitz-Zorrotz ehiza eta arrantza elkarteak zozketak egingo ditu Lareo eta Arriaran urtegiaren arrantza egin ahal izateko. Hurrengo zozketak uztailaren 8an eta 22an egingo dira. Izenak emateko epea, zozketa egunean 19:00etan itxiko da. Abuzturako eta irailerako baimenak elkarte bertan banatuko dira zozketarik egin gabe.

Liburutegiaren udako ordutegia

Kurtsoa amaitzearekin batera Beasaingo Udal liburutegia itxita izango da arratsalde. Ordutegi berria 9:30etik 13:30era izango da.

Ezkiagako Ludoteka ere itxita izango da udara osoan zehar.

KZ Gunea ere abuztuan itxita izango da baina uztailaren zehar ordutegi berria izango du 8:00etatik 16:00etara.

UEUrako subentzioak

Udaleko Euskara-batzordeak, 2003ko XXXI. UEUren edizioan izango diren ikastaroetarako nahiz orokorki Unibertsitaimailako euskarazko ikastaroetarako, diru-laguntzak eskaintzen ditu ikasle euskaldun beasaindarrentzat. Baldintzak betez gero, laguntzak, kostuaren 2/3koak izango dira. Jakin eza zue eskaerak uztailaren 11 bitartean egin behar direla. Udaletxeko Harrera-bulegoan edota Euskara-zerbitzuan entregatu behar dira eskaerak. Informazio gehiago telefono honetan: 943 028063; posta elektronikoa: euskera@beasain.net

Loinatz abesbatzan bazkide egiteko aukera

Loinatz abesbatzatik adierazi dutenez oraindik badute aukera bazkide berri egin nahi dutenak. Interesatuak izena eman besterik ez dute iragarpen taulan.

Odol ateraldia

Odol emaileen ordezkariak jakinarazten du, uztailaren 8an egingo dela odol ateratzea. Urbi etxeko lokalean, arratsaldeko 6etatik aurrera.

IV. Aizkorriko Lagunen Eguna eta mendi maratoia

Uztaileko lehenengo igande-arekin batera, Aizkorriko Lagunen Eguna ospatzen dugu herrian. Aurten laugarren edizioa izango du. Iaz gainera, Zegama-Aizkorri mendi maratoia antolatu zen lehenengo aldiz. Marka guztiak hautsiko dira gainera bigarren edizio honetan, parte hartzaileei dagokionean. 300 laguneko muga jarrita bazegoen ere, Euskadiko eta Espainiako kope-tako proba puntuagarria dela eta, kopurua erraz gainditu da eta muga hori zabaldu egin da. 330 bat korrikalari goizeko 9etan irteera puntuan izatea aurreikusten da. Mendi maratoiari buruzko informazioa 26. orrian duzue.

Mendi maratoia gertu-gertutik ikusteko aukera izango da. Prestatu den egitaraua jarraian duzue.

06:00etan: Zegamako plazatik Aizkorriko mendi ibilbidearen irteera Amezti Mendi Elkarteko gidaritzapean.

07:30etan: Zegamako plazatik autobusez Apeaderoraino eta hemendik Sancti Spiritura oinez Amezti Mendi Elkarteko gidaritzapean.

10:00etan: Atsedenaldia

Sancti Spiritum. Meza Sancti Spirituko basilizan Aita Iñaki Aranzadik emana.

10:30etan: Hamaiketako, txorizo ogitartekoa eta edaria, bertara hurbildu nahi duten guztientzat.

11:00etan: Maratoiko lehen korrikalariek Sancti Spiritutik igaroko dira eta 11:45ak arte igarotzen diren guztiak ikusteko aukera izango da.

11:30etan: Sancti Spiritutik Zegamarako jaitsiera lagun artean Gurutze Gorriaren laguntza eta mendiko automobil zerbitzua jarriko da norbaitek hala behar izanda ere.

13:15etan: Erromerian datozenak trikitilariekin kalejiran sartuko dira herriko plazara.

14:30etan: Maratoiko sari banaketa.

15:00etan: Bazkaria herriko pilotalekuan, bertsolariekin eta trikitilariekin.

18:00etan: Herriko kaleetan erromeria erraldoi eta bu-ruhandiekin.



Egurraren Interpretazio zentroa jarri da martxan

Ekainaren 25ean, San Bartolome auzoan dagoen Anduetza etxean kokatu den Egurraren Interpretazio Zentroaren inaugurazio ofiziala egin zen. Ekitaldi horretara, etxe horren berre-raikuntzan era batera edo bestera parte hartu duten guztiak gerturatu ziren.

Proiektu honek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentutik eta Eusko Jaurlaritzatik jaso du laguntza eta besteak beste, Jon Mikel Murua eta Xabin Intxaurrea izan ziren, Juan Inazio Galdos alkatearen bi aldeetan inaugurazio ekitaldian.

Anduetza, edota zegamarrontzat Ospital Zaharra, Egurraren Interpretazio Zentro bilakatu da Udalaren gestioaren ondorioz.

Berehala Baso Zerbitzua jarriko da bertan, hau da, basoa ateratzeko beharrezko diren baimenak bertan atera ahal izango dira, eta jarraitu beharreko pauso guztien informazioa ere eskainiko da.

Beste alde batetik, Imanol Artola herritarrak osatutako Euskal Herriko zuhaitzen bilduma ere bertan kokatzen da. 10-11. orrialdeetan informazio gehiago duzue.

Bi erakusketa

Aizkorriko Lagunen Eguna honetan bi erakusketa izango dira.

Batetik, Linue Zegama Kooperatibak, denda irekiko du. Beraien lanak erakusgai,

eta noski, salgai, izango dira bertan.

Bestetik, Maria Luisa Gorratxategik pintura erakusketak jarriko du Kultur etxean. Goiz eta arratsalde egongo da zabalik.

'Zahartzaroan portaera nahastea' ikastaroa

Udal Gizarte Zerbitzuetatik 'Zahartzaroan portaera nahastea' gaia oinarri duen ikastaroa antolatu da. Uztailaren 14tik 18a bitartean izango da ikastaroa eta hizlaria Amagoia Muruamendi izango da. Bertan parte hartu nahi duenak, izena eman beharko du uztailaren 18a baino lehen. Ikastaroan parte hartuko dutenak uztailaren 10ean elkartuko dira arratsaldeko 6,30etan, ikastaroaren ordutegia zehazteko.

Uztailak 13: Jubilatuen eguna

Uztailaren 13an Jubilatuen eguna ospatuko da, Udalak antolatutik. Egurdiko 12etan meza nagusia izango da, Orkatz abesbatzak eta bertsolariak lagundurik. 14:00etan, bazkaria eskainiko du Udalak, kiroldegian.

Edurne Albizu



Ordizia Donejakue bidean

Erromes-maskorra ikusiko duzue hemendik aurrera Kale Nagusian Frantziako atalde-tik sartzen zaren bakoitzean (Jakes etxe inguruan). Ordizia Donejakue bidean sartzen da, Irualdetik etorritako jendea pasatzen zen garaia batean herritik eta ondoren San Adriana abiatu, hortik Araba aldera pasatzeko.

Momentuz erromes-maskor bakarra itsatsi da aipatu lekuko zoruan, baina hemendik aurrera hainbat eraikinetako paretetan ere jartzekoak dira. Honekin Ordizia Donejakue bidean sartzen dela erakutsi nahi da eta erromesei bidea erakusteko balio du.

Urbitate-Tximista

Iritsi da finala jokatzeko unea. Aurreko asteburuan Badago-Urbite eta Bustunmira-Tximista taldeko jokalariek aritu ziren nor baino nor anexo futbol zelaian. Tximista Sagardotegiak garaipena lortu zuen 1-0ko emaitzaz gailenduz eta gauza bera egin zuen Urbite Sagardotegiak. Honek, ordea, penalti

jaurtiketen beharra izan zuen, neurketa eta luzapena 1-leko emaitzaz amaitu baitzen.

Esan bezala, beraz, XXIV. Lagunarteko Futbol Txapelketako final handia larunbatean, hilak 5, goizeko 11etan anexoan. Aurrez aurre txapelketako bi beterano, Urbite eta Tximista Sagardotegia. Aurretik Badago eta Bustunmirak 3. eta 4. postuak erabakitzeke neurketa jokatu du te. Eguerdian, txapelketan parte hartutako 10 taldeetako jokalariek Tximista Sagardotegian elkartuko dira eta bertan egingo da sari banaketa.

Garagardo festa arrakastatsua

Pozik egoteko moduan dira errugby taldekoak. laugarren urtez jarraian garagardo festa antolatu eta jende aldetiko errekor guztiak hautsi dituzte. 4 egunetan izan zen zabalik pilotaleku egokitua eta lehen egunetik igandera arte garagardoa eta txerri-ukondoa izan ziren protagonista. Estaligabeko pilotalekuan karpa ere jarri zuten eta erabat asmatu zuten, hau ere jendez beteta izan baitzen egunero.

Barruan 28 garagardo desberdin dastatzeko aukera. Txuriak, gorriak, horiak, beltzak,



Komiki lehiaketan sarituak

Ainara Garmendia (Oianguren Institutua) "A" mailan eta Xabier Araña (Jakintza Ikastola) "B" mailan izan dira II. Euskarazko Komiki Lehiaketako irabazleak. Biek ere koloretan egindako lanetatik jaso dute saria, DBHko lehen ziklokoen artean bata eta DBHko bigarren ziklokoen artean besteak.

56 lan aurkeztu ziren guztira eta aipatu zuri-beltzean egindako lanen artean sariak desert geratu zirela, epaimahaikoa osatzen zutenen iritziz behar adinako mailarik ematen ez zutelako. Hizkuntza, marrazketa eta orijinaltasuna izan dira epaimahaikoen aintzat hartutako faktoreak eta koloretako komikiaren artean ez dute aukeraketa batere erraza izan. Komikiak ikusgai izango dira hemendik aurrera Barrena Kultur Etxean.

Argazkian sarituak epaimahaikideekin batera.

San Fermin zozketa

Azken boletoak salgai daude oraindik Etxezarreta Kaleko Txindoki Tabernan. Bildutako dirua San Jose zahar etxerentzat izango da eta zozketaren dirua. Astelehenean, San Fermin eguna, egingo da zozketa tabernan bertan.

Berria

'Berria' euskaldunon egunkariak akziodunak behar ditu oraindik ere. Oraindik eskuratu gabe bazaude 50 eta 300 euroren trukekoak dituzu eskuragarri. Horretarako udaltxeko euskara zerbitzura jo

edota egunkariaren aldeko batzordekide batekin harremanetan jarri. Materiala saltzen ere postuak ipiniko dira hemendik herriko festak bertan.

Santa Ana jaiak

Uztailarekin batera herriko jai nagusien txanda izango da. 19 eta 20a umeen egunak izango dira eta ondoren 24, 25, 26 eta 27an iritsiko zaie helduei txanda. Hurrengo alean izango duzue honi denari buruzko informazioa.

Aitor Calvillo

alkoholik gabekoak..., denen gusturako zegoen. Freskagarriak ere ez ziren falta izan gazte-txoentzat. Hauekin batera txerri-ukondoa, saltxitxak, haragi pastela eta postrea. Adin guztietako jendea ikus zitekeen, gainera, denak garagardo fresko bat hartu aitzakian.

Errugbykoek lana franko egin zuten, baina emaitzak merezi du. Ohorezko "b" mailan gastuak handiak izango dira eta ziur primeran etorriko zaiela garagardo festan ateratakoa. Datorren urtean berriro antolatuko dutela ere azaldu dute errugbykoek.



Txamarretxeko festa uztailaren 12an

Urtero bezala, uztailaren 12an, larunbatean, Txamarretxeko festak ospatuko dira Zaldibian. Hona hemen egun horretako egitaraua:

17:00etan: Herri jolasak.

18:30ean: Goiztiri Txaranga buru handiekin, beheko kale-tik gora.

19:00etan: Iztueta Dantza Taldearen saioa.

19:30ean: Toka txapelketa. Izen ematea 19:00etatik 19:30eara izango da.

20:00etan: Amets Arzellus eta Miren Artetxe bertsolarien saioa.

21:00etan: Afaria Arrese jate-txean (txartelak bertan salgai egongo dira). Afal ostean bertso eta trikitiaz gōzatze-ko aukera ere izango da.

00:00etan: Erromeria Izer eta Alanbier trikitilariekin.

Gainera, eta urteroko usadioari jarraituz, Arrese jate-txeak eskainita, ardoa eta gazta zaharra eskainiko zaie bertara gerturatzen direnei.

Vignmalera irteera

Gailurreruntz mendi elkarte-ak uztailaren 19-20 astebuka-eran Vignmalera irteera antolatu du. Larunbat goizean irten eta igande arratsean herrian izango dira. Larunbat gaua Baisselance Aterpean igaroko dute bertan afaldu eta gosalduz. Erdi mailako zailtasuneko ibilbidea da: pont d'Espagnetik (1496) irten aterpera (2651) eta igandean ttontorra (3298).

Euskara ikasteko diru laguntzak

Zaldibiako udalak, 2002/03 ikasturtean euskara ikastaroak burutu dituztenei diru laguntzak eskaintzen dizkie. Diru laguntza hauek jaso nahi badituzue ondorengo agiri hauek aurkeztu behar dituzue: diru laguntzaren eskaera, matrikularen ordain agiria eta euskaltegiko ikaslearen agiria.

Kz- guneko mintegiak

Uztailaren zehar, Kz- gunek hainbat mintegi antolatuko ditu. Lehenengoa uztailaren 1ean izan zen, eta gaia ondorengo hau zen: Euskara ziberespazioan. Baina, gehiago ere izango dira, guztiek ordutegi berbera dute, 11:00etatik 13:00etara:

Uztailaren 8an: Postal bat bidal ezazu.

Uztailaren 15ean: Zure egunkaria irakurri.

Uztailaren 22an: Finantza erarekin lan egin.

Bestalde, gogoratu, abuztu osoan zehar Kz- gunea itxita egongo dela.

Edurne Soraluze

Gonbitea edonorentzak luzatzen dute. Argibide gehia-

go zaldibiako kultur etxean, 943160338.

Zaldibiako VI. Gazte Festak

Uztailaren 17, 18 eta 19 izango dira aurtengoan VI. Gazte Festak. Hona hemen aurtengo jaien egitaraua, halere, oraindik ekintza guztiak finkatu gabe daude, beraz, zenbait aldaketa egon daitezke:

Uztailak 17, osteguna:

19:00etan: Arkakuxoaren jaitsiera.

Gauean: Afari herrikoia (urtero bezala, boka-diloekin), ondoren filmina emanaldia.

Uztailak 18, ostirala:

16:00ak aldera: Kafe tertulia.

Ondoren: Sasi pilotari txapelketako finala.

19:00etan: Sukaldari txapelketa.

23:30ean: 4 Itzal taldearen kontzertua.

Uztailak 19, larunbata:

Goizean: Azoka herriko plazan

14:00etan: Herri bazkaria.

Arratsaldean: Ez aspertzeko moduko jolasak.

Gauean: Denok moztarotuta eta afaltzera! Ez zarete damutuko!

Oharra: gogoratu oraindik lan asko dagoela egiteko. Denon laguntza da beharrezkoa jai dotore batzuk antolatu nahi baditugu!



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA



**Nafarroa
Etorbidea, 9**

EGUZKI
INPRIMATEGIA

☎ 943 88 94 82

BEASAIN



Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

Aholkularitza

ASEPLAN

Abokautak - Ekonomilariak

Tel.: 943 887 129

Oriamendi Kalea 15, behea **BEASAIN**

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabekideen administrazio-lanak

e txekin

www.txekin.net

Areto futbola

Aurtengo denboraldiari dago-kionez, Legorretako areto futboleko bi taldeek bukatu dituzte beraien lanak, eta oporretan daude dagoeneko. Bilkoin Legorretak lehenengo mailan jokatu du, eta denboraldi on bat jokatu ostean hirugarren postua lortu zuten, Iñaki Oiarbide buru zutela. Bigarren taldeak, aldiz, Bilkoin Ereduak, bigarren A mailan jokatu du, denboraldiaren amaieran hamabigarren postuan geratu zirelarik. Talde honen entrenatzaile lanetan Mariano Garmendia aritu da.

Aurtengoa zortzigarren denboraldia izan da Legorretako herritarrek areto futbolaz gozatzeko aukera izan dutena. Orain dela bost urte, mailaz igo zirenez, Tolosara joan behar izan zuten partiduak jokatzen, hemengo zelaiek ez baitzituzten bete beharreko arauak betetzen. Honen ondoren, Harripila kiroldegia egin zen, eta orain dela bi

denboraldi berriro hasi ziren jokatzen Legorretako Harripila kiroldegian. Honela, bi talde sortu ziren.

Hala eta guztiz ere, gaur egungo zaletuek ez dute hasierakoeekin zer ikusirik. Behar bada handia izan du ikuslegoak, eta hau aldatzeko asmoz, bazkideak egin ziren denboraldi hasieran. Horrela, urte osoan zehar hainbat afarien zozketak egin dira. Guzti honen asmoa, partiduetara jende gehiago erakartzea zen. Bazkide asko lortu zituzten, baina jendea ez zen partiduak ikustera joaten. Bestalde, jokariak geroz eta gazteagoak dira eta geroz eta gogo gutxiago dago. Ondorioz, taldeak etorkizun iluna duela nabaria da. Beraz, hemendik deialdi bat egin nahi da datorren urterako herriko futbolariak gogotsu has daitezen, eta herritarrek ahalegin bat egin dezaten, guztion artean giro polit bat sortzeko.

Gaixoen eguna

Aurreko igandean, hilak 29, gaixoen eguna ospatu zen. Herriko frontoian ospatu zen, bazkari eder batekin: arrain zopa, solomilloa, "brazo gitano" izozkiarekin eta kafea. Bertara hurbildutako guztiek herriko Eneritz eta Naiara trikitilarien soinuz gozatzeko aukera izan zuten.

Odol emaileen irteera

Datorren igandean, hilak 13, odol emaileen irteera izango da. Goizeko 9etan abiatuko dira Gesaltzara. Bertan gosaldia eta nekazaritza, eskulangintza eta gatzagintza azoka ikusiko dute. Ondoren, Armentia bisitatzen joango dira. Bazkaltzera, berriz, Gasteizera joango dira. Bazkariko menua honako hau izango da: entremes hotzak eta beroak, legatza txakolin erara, solomilloa, tarta, kafea, kopa eta purua. Guzti honen prezioa 26 euro izango da. Bazkaldu ondoren Gasteiz ezagutzeko aukera egongo da. Etxerako bidea arratsaldeko 8etan izango da.

Mediku kontsulta berria

Ekainaren 30ean zabaldu zen mediku kontsulta berria. Kale Nagusiaren hasieran kokatu da, herritar guztientzat onerako izango delakoan.

Agurne Sanchez euskal selekzioarekin

Agurne Sanchez, Cerdeña italiar irlan izan da euskal selekzioarekin. Bi txapelketa jokatu dituzte. Lehenengoan bigarren postua lortu zuten, eta bigarrenengoan, berriz, txapeldun suertatu ziren, Brasilarderei irabazi ostean. Munduko txapeldun geratu dira beraz. Hala eta guztiz ere, hurrengo alean izango dituzue guzti honen xehetasun zehatzagoak.

Zelai Amenabarro

Ikastaroak

Zaldiketa ikastaroa

Uztailaren 1etik 12ra, uztailaren 15etik 26ra, abuztuaren 5etik 16ra eta abuztuaren 19tik 30era, astearte, asteazken, ostegun, ostiral eta larunbatetan, zaldiketa ikastaroa izango da. 45 minutuko saioak izango dira. Taldeak gehienez, 6 lagunekoak izango dira. Prezioa: 10 saio, 72 euro.

Hipikaren hastapenerako ikastaroa

Uda 2003 kanpainaren barnean, eta Foru Aldundiaren laguntzarekin, Hipikaren hastapenerako ikastaroa antolatu du Udalak, Alarpe zalditegian (Lazkaomendi). Ikastaroa irailaren 2tik 13ra izango dira, 10 saio. 9 urtetik aurrerakoentzako da. Prezioa: 30 euro. Informazioa eta izenematea, udaletxean

Udalekuak 2003

Beste behin ere udalak herriko 10 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako Udalekuak antolatu ditu. Aurten Murillo de Gallegon burutuko dira eta zenbait abenturazko ekitaldiz osatuta dago: rafting, piraguismo, arku tiraketa... Egunak uztailaren 14tik 19ra izango dira. Izena emateko epea ekainaren 19an bukatu zen. Prezioa: 1go senideak: 115euro; 2. senideak: 96 euro; 3. senideak: 76 euro; Herrikoak ez direnak: 192 euro.

Pala txapeldunak

Gipuzkoako herriarteko pala txapelketa irabazi du herriko taldeak. Garikoitz Arrieta, Xabier Berasa, Jose Luis Sarasola eta Jose Manuel Garridok osatzen dute taldea.

Udaleku irekiak

3tik 10 urte bitarteko haurrei zuzendutako udalekua ere izango da Kometa ludotekan, uztailaren 7tik 24ra, goizeko 11etatik 2etara. Matrikula: 15 euro.

IV. Aizkorriko Lagunen Egunaren barruan

Uztailak 6: Zegama-Aizkorri mendi maratokia

Goizeko 9etan emango zaio irteera mendi maratoiari. 42,195 kilometro eta 5.472 metroko gorabeherak ditu ibilbideak, pagadi, kars paraje eta belardietan barrena. III. Espainiako Koparako eta III. Euskadiko Koparako puntuagarria izango da aurten II. Zegama-Aizkorri mendi maratokia.

Errekorra, Amezketako Juan Martin Tolosak dauka: 4 ordu, 14 minutu eta 23 segundu. Emakumezkoen artean, Rosa Lasagabaster izan zen iaz onena. 6 ordu, 5 minutu eta 27 segundu behar izan zituen mendi maratokia amaitzeko.

Puntako partehartzaileak

Antolatzaileek 300 korrikalarientzako muga jarri zuten baina Espainiako koparako puntuagarria izateak izen emate kopurua igo egin du. Gainera, probek gogortasunaren arabera ematen dituzte puntuak eta Zegamako da estatuko probarik gogorrena. Hori dela eta azkenean 320 korrikalari inguru izango dira Zegamako irteeran. Hauen artean bai gizonezkoen eta emakumezkoen kategorian Espainiako txapelduna eta txapeldunordea izango dira.

Ibilbide alternatiboa

Araudiak ibilbide alternatiboa prest izatera behartzen ditu antolatzaileak. Eguraldi oso txarra izanez gero, Aizkorriko gailurreria arriskutsua izan liteke korrikalarientzat, eta ezinezkoa bertan hainbat ordutan egon beharko diren antolatzaileentzat. Bigarren ibilbide honek Aizkorri gainera igo gabe Oltza eta Urbia ingurutako pagadietan hainbat kilometro ditu arauzko 42ak osatu ahal izateko.

Antolakuntza lanetan 200 lagun inguru arituko dira, gehienak zegamarrak. Korrikalarientzat 1.800 litro edari, 300 kilo laranja eta platano, barrita energetikoak, glukosa eta beste hainbat gai prest izango dituzte.

10:45-11:00ak aldean Sancti Spiritutik igaroko dira lehenengo korrikalariak. Aizkorriko gailurrean izango da tarteko helmuga 11:15-11:30ak aldean. Korrikalariek, indarrak hartzeko aukera izango dute, bertan jatekoa eta edatekoa banatuko baitzaie. Lehenengo korrikalariak, 13.30ak helmugara iristea aurreikusten da, eguraldiaren arabera, helmugaratze-ko ordua 15-30 minutuz atzeratu eta aurreratu daiteke. 14:30ean egingo da sari ematea. Arratsaldeko 5etan kontrola itxiko da.

Antolatzaileek jakinarazi nahi dute Otzaurteko errepi-



Aizkorriko Lagunen Eguna

06:00etan: Zegamako plazatik Aizkorriko mendi ibilbidearen irteera Amezti Mendi Elkartekoen gidaritzapean.

07:30ean: Zegamako plazatik autobusez Apeaderoraino eta hemendik Sancti Spiritura oinez Amezti Mendi Elkartekoen gidaritzapean.

10:00etan: Atsedenaldea Sancti Spiritum. Meza Sancti Spirituko basilizan Aita Iñaki Aranzadik emana.

10:30ean: Hamaiketako, txorizo ogitartekoa eta edaria, bertara hurbildu nahi duten guztientzat.

11:00etan: Maratoiko lehen korrikalariek Sancti Spiritutik igaroko dira eta 11:45ak arte igarotzen diren guztiak ikusteko aukera izango da.

11:30ean: Sancti Spiritutik Zegamarako jaitsiera lagun artean Gurutze Gorriaren laguntza eta mendiko automobil zerbitzua jarriko da norbaitek hala behar izanda ere.

13:15ean: Erromerian datozenak trikitilariekin kalejiran sartuko dira herriko plazaraino.

14:30ean: Maratoiko sari banaketa.

15:00etan: Bazkaria herriko pilotalekuan, bertsolariekin eta trikitilariekin.

18:00etan: Herriko kaleetan erromeria erraldoi eta buruhandiekin.

dea itxita egongo dela goizeko 9,30etatik 10etara.

Irratia zuzenean

Zegamako MKL irratiak an-

tena berezia jarri eta lasterketaren zuzeneko emanaldia egingo du ikusleek lasterketa jarraitu ahal izateko. FM-ko 107,5 frekuentzian dago MKL irratia.

"LURRA"
J. Ramón Agirre "Márron"
Tel. 943 18 02 53
E-mail: lurra@pirineum.net

www.pirineum.net Pirinioak pausoz pauso

Murgil zaitez inguru paregabe honetan, aditu eta natur maitaleen laguntzaz

Gainez gain, itsasotik itsasorako zeharkaldiak

1. Hondarribia - Belagoa - (7 etapa) • 2. Belagoa - Pineta (7 etapa)
3. Pineta - Tavascan (7 etapa) • 4. Tavascan - Eyne (7 etapa)
5. Eyne - Banyuls - Mediterranea - (7 etapa)



Aitor Etxebeste, 2. goierritarra izan zen Aizkorri-Zegama maratoian

"Gehien harritu ninduen, publikoaren erantzuna izan zen"

Beasaingo Aitor Etxebeste, iazko Zegamako mendi maratoian bigarren goierritarrik onena izan zen. 5 ordu 14 minutu eta 43 segundo behar izan zituen 42 kilometroko ibilbidea gauzatzeko. Aurten ez du parte hartuko arrazoi bat eta beste tarteko, baina datorren urtean parte hartzeko asmoa azaldu du.

Zer moduzko proba iruditu zitzaizun Aizkorri-Zegama mendi maratoia?

Gehien harritu ninduen, publikoaren erantzuna izan zen. Ibilbidea ezagutzen genuen, bagenekien oso gogorra zela, eguraldiaren beldurra ere bagenekian. Bagenekien jende asko izango zela ikusten baina batez ere Sancti Spiritu inguruan, Andraizko azkeneko igoeran, ikaragarria izan zen. Beste proba askotan ibilita gaude eta jendeak animatzeko zuen hainbesteko berotasuna eta gogoia ez dugu sekula ikusi. Oso-oso polita izan zen. Agian kalterako izan daiteke, jendearen aurrean azkarregi joan baizaitzke, baina oso gustura hartzen da.

Ibilbidea, polita.

Bai, oso ibilbide polita da. Egia esanda lasterketa zoazenean ez zara paisajeaz konturatzeko.

Proba gogorraren maila eman zaio.

Iaz arte asfaltozko maratoian bakarrik parte hartu izan



rrika mendian, piragua, eskalada, mendiko bizikleta... Orientazioa ere norberaren kontua izaten da. Ibilbidea ez da markatuta egoten. Bakoitzak mapa bana izaten du eta berak aurkitu behar du norabidea, ipar-orratzarekin. Oso kirol polita da baina dedikazio handia eskatzen du", zehaztu du Etxebestek.

nuen, baina mendian asko ibilitakoa naiz eta oso-oso ibilbide gogorra egin zitzaidan. Inguruan eta atzerrian ikusi ditugun proben desnibelak ikusita, ikusten da oso-oso proba gogorra dela. Aurkezteak bakarrik, ondo zaindutako pertsona dela esan nahi du, mendian asko ibilitakoa. Proba horretan ezin da korrikan edo mendian bakarrik ibiltzen den bat atera, biak ezagutu behar ditu.

Gogorrera zer izan zen?

Ni nahiko larri ikusten nintzen Aizkorriko kresterioan. Bero handia egiten zuen eta azkeneko kresterioa oso-oso deserosoa da korrika egiteko. Harri suelto asko dago eta iruditzen zaizu oso nekatuta zoazela. Eta gainera, oraindik

Raid probak gustuko

Raid abentura probatan ere parte hartutakoa da Aitor Etxebeste. Euskal Herrian ez da era hone-tako probarik antolatzen eta nahikoa kirol ezezaguna da. "Goraka doan kirola da. Konbinazioa bat da. Taldekako proba da. Batzutan errele-boka izaten da eta beste batzutan talde osoak proba osoa egin behar izaten du. Disziplina ezberdinak izaten dira: ko-

asko falta da bukatzeko. Sentazio gogorra da. Baina azken batean gogorrera egin zitzaidan, ezin dela erritmo konkretu batean joan, desnibel aldaketa handia dagoelako.

Psikologikoki ere prestatu behar izango da.

Bai, psikologikoki gogotsu egotea oso-oso garrantzitsua da. Askok sufritu behar izaten da eta motibaturik ez bazaude eta zure erritmoa ez baduzu aurkitzen, oso zaila izaten da.

Iaz egindako denborarekin gus-tura gelditu zinen?

Bai. Iaz ibilbide osoa behin bakarrik egin nuen eta tarteka bi edo hiru aldiz. Orduan helburua 6 ordutik jaitea jarri nuen. Baina karrerako egune-

an konturatu nintzen denbora ona egiten ari nintzela. Orain berriz aterako banintz, helburu bezala denbora hori hobetzea jarriko nuke. Dezente entrenatu nuen proba hori, baina ez beste maratoiak adina. Nik uste aurten ez direla lehenengo 10en denborak asko hobetuko. Baina gure artekoetan, nik uste dezente hobetuko dela. Goierritarrek denborak hobetuko dituzte.

Zer moduzko antolaketa iruditu zitzaizun?

Oso-oso ona. Eta aurten ere, entzun dudanagatik, itxura oso polita dauka. Aurten gainera korrikalari gehiago etorriko dira, ia 300.

Aurten Euskadiko eta Espainiako kopen barruan sartu dute.

Guri egia esan, ez digu gehiegi eragiten. Espektatiba handia dago Estatu mailatik zein jende etorriko den jakiteko. Kataluniatik maila handiko jendea etorriko dela diote. Badaukat gogoia ikusteko hementxo korrikalariekin zein alde dagoen. Baina nik uste partehartzaile gehienoi ez digula eragingo. Azken batean bakoitzak norbere buruarekiko daukagun erronka da.

Iazkoa lehenengo mendi maratoia izan zen zuretzat. Beste urteren batean Zegamako maratoian parte hartzeko asmorik ba al duzu?

Seguru baietz, ziurrenik datorren urtean.

Aurten ikustera joango al zara?

Bai. Koadrilako bi aterako dira eta anaia ere bai. Ikustera joango naiz, eta ahal badut zerbaitetan laguntzera ere bai.

Beasaingo III. Triatloia, uztailaren 5ean, Arriarango urtegiaren inguruan

Beasaingo Antzizar Triatloi Taldeak antolaturik, uztailaren 5ean, larunbatean, arratsaldeko 4etan, Beasaingo III. Triatloia jokatu da, Arriarango urtegiaren inguruan. Igeriketako proba, 1.500 m, Arriarango urtegiaren bertan egingo da. Bizikletako proban, 38 km., Ormaiztegi-Liorni-Zegama joan-etorria egin beharko dute. Korrikako proba azkenik, 10 km. Arriarango urtegiaren inguruan.

Aurreko urteetako ibilbide berbera izango da. 100 lagun inguruk parte hartzea espero dute antolatzaileek. "Zirkuitoa, batez ere urtegiaren inguruan korrika egiten dena, gogorra da, baina oso polita dela esaten dute atletak. Bi ordu inguruko lana izaten da, eta kirolariak horretarako prestatuta daude, eguraldiak asko esan nahi badu ere", dio Etor Mendia, Antzizar Triatloi Taldeko kideak. Emakumezkoek eta gizonezkoek, proba berdina egin beharko dute. Sariak ere berdinak izango dituzte.

Ostiral iluntzean bukatuko da, federatuentzat, izena emateko epea. Gainerakoentzat aurreko egunean bukatu zen. Kemen kirol osasun zentroan egin behar da izen ematea: 943 16 22 26 zenbakian.



Garin eta Astigarretakoei oharra

Garin eta Astigarretako auzotarrei oharra helarazi nahi die antolatzaileek: probak irauten duen bitartean bidea itxita egongo denez, Mandubiako bidea erabil dezatela. Bide batez sortutako eragozpenak direla eta barkamena eskatzen die.



Hasier Mujika bikain Gipuzkoako itzulian

Hasier Mujika Caja Rural taldeko txirrindulari beasaindarrak Gipuzkoako itzulian bi etapa garaipen, erregularitatea eta mendiko sailkapena lortu ditu. Olaberriaren bukatu zen 2. etapan ia 3 minutu galdu zituen, itzulia irabazteko aukera guztiak galduz. Hala ere sailkapen orokorrean 6. amaitu zuen irabazlearengandik 51 segundora.

18 urte bete berriak ditu Hasierrek eta hau du jubenil mailan bere bigarren denboraldia. Alebinetarik kadete-taraino Loinatz txirrindulari elkartearen aritu zen eta jubentzetan Ordiziako taldera pasatu zen, iaz Muebles Ordiziako babesle zutela eta aurtengo Caja Rural babesle dutela.

Aurtengo denboraldia ziklo krosa eginez hasi zuen, ederkari hasi ere. "Gustura aritu nintzen 4-5 lasterketa irabazi nituen, tartean, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak. Ondoren, sari bezala, munduko txapelketara joan nintzen", dio Hasierrek.

Ondoren geldialdi bat egin zuen eta oraintxe berriz ere sasoi betean dago. Dena den, bere buruarekin ez dago hain gustura, "lasterketa batzuk irabazi ditut, baina, garrantzitsuenetan huts egin dut. Entrenatzaileek esaten didate burua gehiegi jaten dudalako gertatu zaidala".

18 urte bete berriak ditu Hasierrek eta hau du jubenil mailan bere bigarren denboraldia. Alebinetarik kadete-taraino Loinatz txirrindulari elkartearen aritu zen eta jubentzetan Ordiziako taldera pasatu zen, iaz Muebles Ordiziako babesle zutela eta aurtengo Caja Rural babesle dutela.

Etorkizunari begira

Datorren urtean afizionatuetara zein talderekin pasako den erabaki gabe dago. Eta, aurrera begira, profesionale-tara igo eta txirrindularitzatik bizitzeko oso zaila ikusten duenez ingenieritza teknika ikasten hasiko da irailean.

Hasier ez da familiako lehenengo txirrindularia, Aimar eta Joseba Zubeldia lehenengoak baititu.

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488

OLABERRIA



RENAULT

LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea

☎ 943 882 442

☎ 943 888 901

Faxa: 943 888 901

LAZKAO



IRUDI - Foto, S.L.

Javier Fernández Sánchez

Erroilu bat **doan** negabibo errebelatu bakoitzarekin

Argazki zaharren retoke digitala

San Inazio kalea, z/g BEASAIN

Tel./Faxa: 943 888 100



Lan-taldeak ezagutuz

KMK 03ko lan-taldeak gertutik ezagutzeko garaia iritsia dela uste dugu. Ale honetan hiru lan-talde aurkeztuko dizkizuegu eta datozen aleetan ea gehiagorako aukera daukagun.



Iñaki Acosta
Garbiketa arduraduna

Zein da zuen eginkizuna?

Beno, gu garbiketan aritzen gara, edozein jaialdi edota ekintza dela ere, ondorengo garbiketa lanetan aritzen gara. Ez da lanik politena baina egin beharrekoa bai. Egunik garrantzitsuen urriaren 5a izango da eta egun horretarako prestaketak gogorragoak dira. Inguruko garbiketa etxe guztiekin jarri gara harremanetan, esate baterako Sasieta garbiketariak, ura botatzeko kamioia eta zabor berezietan lagunduko digu. Diputazioak birziklapenerako poltsak emango dizkigu, Galantek material ugari, Arlanek komunak, Ecograsek bidioiak, Vialkik eskobatzeko makina, Juper etxeak garbiketarako materiala, Apainek, Bixkorrek eta Ezkizuk bandejak eta seguruenera bakarren bat ahaztuko zitzaidan.

Zenbat lagun ari zarete?

Berrogei bat lagun ari gara, baina urriaren 5erako berrehun bat lagun beharko ditugu, zortzi gune izango dira guztira, hogeita bi lagun guneke, atera kontuak, jende asko beharko dugu bai. Ez gara egun osoan denok arituko bi txanda egingo baititugu. Hurrengo egunerako berriz, ikastolako umeei eta ahal duten guztiei deia luzatu nahi genieke herria txukun-txukun utz dezagun.

Zer aurreikusi duzue urriaren 5erako?

Gauza guztiak ondo ateratzea espero dugu, lan gehienak aurreratuta ditugu, beraz, lasai antzean gabiltza. Etortzen diren guztiei laguntza pixka bat eskatuko nieke, ahalik eta gehien birzikla dezaten.



Amaia Aranburu
Osasun arduraduna

Zein da zuen eginkizuna?

Gu, nolabait esateko hiru talde gabiltza elkarturik, batek; segurtasuna Joseba Alargunsoro buru delarik, bestetik Hilario Sein Kmk guztietan esperientzia handia duena eta anbulantziez eta abarrez arduratzen dena eta osasunari dagokiona. Gure eginkizuna oso zabala da, osasun mate-

rialia lortzea, gune guztietako botikinak eskuratzea, anbulantziak eta segurtasun neurriak bermatzea, Gurutze Gorriko kamioiak eta medikalizatuak ekartzea eta abar luzea.

Zenbat lagun ari zarete?

Oraingoz hamar bat lagun gara jo eta ke ari garenak baina egunerako askoz jende gehiago beharko dugu, nahiz eta lanik handienak lotuta izan.

Urriaren 5erako zer?

Egia esan, gure lana funtsezkoa da eta gauza guztiak ondo ateratzeko guztion laguntza behar dugu. Ez omen da istripu handirik izaten, erriko batzuk, bihurrituren bat edo beste eta edanaren ondorioak agian ugariena. Dena den, egon gaitezen lasai, ondo egindako lanak sari ona izaten baitu.



Mikel Zabala
Trafiko arduraduna

Zertan ari zarete?

Gure lana trafikoa zuzentzea, auto iladak ekiditea eta etorriko diren guztiei lekua bermatzea da. Herriko aparkaleku guztiak gune bihurtuko direnez, lau gune handi prestatu ditugu, nahiz eta lotuta ez izan oraindik, kanpotik datozen autoak utz ditzaten. Autobusak fabrika haundian,

Realeko elastikoaren zozketa

Realeko elastikoa Gari-koitz Goikoetxea zumaia-rrak irabazi zuen. Kilometro egunean ere hemen izango omen da elastikoa jantzita, bezperako ajeak uzten badio, noski. Bezperan ezkonduko baita. Zorionak!

Dena dela ez galdu esperantzarik, estropada egunerako eta beste zenbait egunetarako sorpresak izango baititugu!

Castillo hotela, Zubierrekatik Ataungo gasolinerainoko bidea eta Indarretik Idiazabalgo bidegurutzeraino. Gune haue- tan autobusak izango dira Lazkaora sartzeko eta Lazkaon irekita izango den bide bakarra Hirigoiendik, Zubizkitzara, Mikelarrera eta handik Olaberriera doan bidea izango da.

Zenbat lagun ari zarete?

Hamar lagun ari gara, baina egunerako laurogei bat beharko ditugu, trafikoa, aparkalekuak eta jendea bideratzeko. Oraingoz baimenak eskatzen eta lekuak zehazten ari gara.

Gomendioren bat edo?

Herriko jendeari batez ere, egun horretan eta bezperan derrigorrezkoa ez bada behintzat, autorik ez mugitzeko eta ahal bada garajeetan sartzeko. Badakigu asko eta askorentzat arazoa izan daitekeela, baina uler dezagun egun bakarra izango dela eta pazientzia pixka batekin eta elkar errespetatuz gauzak ondo aterako direla. Mesedez egin diezaiegun kaso seinaleei eta trafikozainei guztion mesederako.

ZINEA

ITSASONDO:

Ekainak 20: 'El hombre que leía novelas de amor', 22:00etan, Ertoetxen.

ORDIZIA:

'El monje'.

Ostirala, 4: 22:15.

Larunbata, 5: 22:15.

Igandea, 6: 16:45 - 19:30 - 22:15.

Astelehena, 7: 19:30 - 21:45.

musika

BEASAIN:

Uztailak 4, Fitter Happier taldearen kontzertua, Igar-tzako jauregian, 21:00etan. Sarrera: 4 euro.

MUTILOA:

Uztailak 5, gauean, Trakets taldearekin dantzaldia.

LAZKAO:

Uztailak 17, Pantxoa eta Peio, Euskadi plazan, 22:00etan.

ZALDIBIA:

Uztailak 18, 4 Itzal taldearen kontzertua, 23:30ean.



antzerkia

LAZKAO:

Uztailak 8, 'Kutsidazu bi-dea, Ixabel', Euskadi plazan, 22:30ean.

magia

LAZKAO:

Uztailak 10, Aitor Marcilla magoa, Euskadi plazan, 21:00etan.

bertsoak

GABIRIA:

Uztailak 20, Iñigo Izagirre eta Joxe Angel Aranburu, Aztiria auzoan, 13:00etan.

LAZKAO:

Uztailak 15, Goierriko bertsolari gazteak, Euskadi plazan, 22:00etan.

ZALDIBIA:

Uztailak 12, Amets Arza-llus eta Miren Artetxe, 20:00etan, Txamarratzen.

erakusketak

BEASAIN:

Abuztuaren 31ra arte, 'Le tour du monde' erakusketa, Igartzako jauregian.

ORDIZIA:

Uztailaren 4ra arte, Irene Mujikaren pintura erakusket-a, Barrenan.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Jauregi

(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

Uztailak 5-6: Laurnaga

(Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.

Uztailak 12-13: Azpilikueta

(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.



hitzaldia

ORDIZIA

Uztailak 4, 'Ikerkuntza ka-zetaritza' hitzaldia, Herriko tabernan, 'Kafe Usainean' programaren barruan, 22:30ean.

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27



☎ 943 88 20 07

BEASAIN

LAN ESKAINTZA

Hartzaindegia eta zentru
publikoetarako deialdiak laister

Hartzaindegiko langileak

Baldintza hartzaindegiko L.H.2

INFORMA ZAITEZ

943 444 509

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

mendi irteerak

ORDIZIA:

Uztailak 6, Aitzgorrira, Ordiziako Mendizale taldeak antolatuta.

Uztailak 11-13, Formigalera, Ordiziako Mendizale taldeak antolatuta.

ZALDIBIA:

Uztailak 19-20, Vignemalera, Gailurrerantz mendi elkarteak antolatuta.

ZERAIN:


Uztailak 12-13, Larunbatean Hiru Errege Mahaiara eta igandean, San Martingo Harrira, 'Hiru behien tributoa' ekitaldira, Kultur Elkar-teak antolatuta.

Abuztuaren 31ra arte

'Euskal esploratzaileak. Le Tour du Monde' erakusketa Beasaingo Igartza jauregian

Ormaiztegiko Zumalakarre-gi Museoak 'Euskal esploratzaileak. Le Tour du Monde' erakusketa antolatu du Beasaingo Udaleko Kultura Sailaren lankidetzaz. Beasaingo Igartza jauregian dago erakusketa ikusgai, abuztuaren 31ra arte.

XIX. mende erdi aldera mapek oraindik eremu asko zuri-zuri zituzten. Munduan zehar, beti ere europarren ikuspegitik, ezagutzen ez ziren lurraldeak ugariak ziren. Espedizioen ugaltzearekin batera, europarren jakin mina asetzearen sortutako aldizkari ugarietan lehena Pariseko Le Tour du Monde izan zen. Aldizkari honek eskaintzen dituen irudien kalitatea eta xarma ezohikoak dira egun, garaiko irudigile eta grabatzaile onenak biltzen baititu, besteak beste, Karl Girardet, Victor Adam eta Gustave Doré. Bestalde, testuek munduko paisaia eta



ohitura desberdinekiko europarren harridura erakusten digute. Lekuak ez dira existitzen europar baten oinak zapaldu arte. Apenas onartzen da zibilizaziorik "kontinente zaharrean" jaiotako-etatik kanpo. Arrazakeria darie testu hauetako askori, baina baita ausardia, abentura gosea eta egoerarik larrietan bizirik irauteko grina ere.

Euskal Herrian ere izan genituen bidaiari ausartak. Hauen presentzia nabarmen

utzi nahi da hiru pertsonaia-ren bitartez: Abbadia, Murga eta Iradier. Haienak dira erakusketan aurkitzen diren objektuak, haien bidaia eta abenturen adierazgarri.

Erakusketa, bitrinapeko Le Tour du Monde aldizkari-ko aleez gain, formatu eta kalitate handiko irudiak jartzen ditu ikusgai. Erakusketa-aren edukiak ikusteko aukera eskaintzen duen webgunea eta garaiko testu, irudiez eta CD batez osatutako katalogoa ditu.

IKASTEK AKADEMIA

www.ikastek.net
ikastek@ikastek.net
Joan Iturralde, 5
BEASAIN
☎ 943 160 120

KURTSOA GAINDITZEKO GARAIA!

Etorri Ikastek akademiara!
Lehen Hezkuntza, DBH, Moduluak,
Batzilergoa, Unibertsitatea

UDA IKASTAROAK

- Eman izena orain!
- ✱ Tailerrak, irakurmena, idazmena, matematika
 - ✱ Eskolako lanak

Informa zaitez!

JAUREGI TOLDOAK s/l

Tfnok.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN



Pedro Jose Landagutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- ✱ Depresioak
- ✱ Harremanetarako arazoak
- ✱ Beldurrak
- ✱ Antsiak
- ✱ Segurtasun eza

Ordutegi eskatzen du konpromisurik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN



Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogiltarteak

Etxebizitzak

salgai

- ➔ Pisua salgai Beasainen. 50 m². Guztiz berria eta mobleztatua. Edu. 649911320.
- ➔ Zegamako erdigu-nean 80 m²ko pisua salgai. Oso eguzkitsua. 699846417.

konpartitu

- ➔ Donostiako Gros auzoan logela bat aurkitu nahi nuke alokatuta-ko etxe batean, irailetik aurrera. 655714042.
- ➔ Elkarbanatzeko pisu bat bilatzen da Goierrin. 607088769. Ricardo.
- ➔ Madrilen ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914595390.

errentan hartu

- ➔ Benidormen apartamentua alokatu nahi da. Aire egokitua izan dezala, igerilekua eta garajea ere bai. 943801107. Joxe.
- ➔ Etxarrin uztailetik aurrera pisua hartuko nuke alokairuan. 678384952.
- ➔ Etxe bat errentan hartuko nuke Seguran, Idiazabalen edo inguruan. 690281452.
- ➔ Lazkaon edo inguruan, etxe hutsa alokatuko nuke. 943430550.

errentan eman

- ➔ Jakan apartamentuak alokatzen da udako, igerilekuarekin. 943216684.
- ➔ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretarako. 9434533981.

Lursaila

errentan hartu

- ➔ 3000 m² edo gehiagoko zelaia alokatuko nuke Goierrin. Urtean 100.000 pezeta. 943886610.

Garajeak lokalak

errentan eman

- ➔ Beasaingo Kale Nagusian, 45 m²ko salerosketako lekua alokatzen da. 943084546.
- ➔ 100 m²-ko etxabea salgai Olaberrian. Biltegirako oso egokia. 943160927.
- ➔ Idiazabalen, Kale Nagusian, garaje-plaza alokatzen da. 655703101.

saldu

- ➔ La Riojako Villa-mediana herrian 60 m²ko etxazpia salgai: sukaldea, bainu osoa, tximinia frantsesa eta hiriagas dun berogailua. Lorategi eta igeritokira sarrera. 627600477 - 941203400.

Negozioa

errentan eman

- ➔ Zeraingo ostatua alokatzen da. 943801734.
- ➔ Olaberriko Etxe-Zuri sagardotegia alokairuan eskaintzen da, jubilaziogatik. 943882049.

Ibilgailuak

salgai

- ➔ Ford Escort salgai, 1,8 TD, 90 zaldi. SS-AZ. 4.700 euro. 943162299 - 635703490.
- ➔ Honda NSR 125 motorra salgai. Malossi kitarekin. 180 cm³. 6.000 km. 650221487.
- ➔ Kawasaki Ninja ZX6 motorra salgai. 1998koa. 650191474.
- ➔ Citroen C15 diesela salgai. SS-AM. 607301243.
- ➔ Renault 15, diesela, salgai. 5 ate. SS-AM-Garajea gordetako. 650679119.

Bestelakoak

salgai

- ➔ Gaixoak oheratzeko garabia edo grua salgai. Klinikako ohea oparitzen da. Biak oso egotira onean. 943084546.
- ➔ Gazte logela salgai, haritzeko. 'Nido' ohea: 90 cm-koa. 1,80 x 65 neurriko mahaia, kajoarekin. 4 apalategi ireki eta bat itxia. 943086504.
- ➔ Estakak salgai, itxiturak egiteko. 689700647.
- ➔ Bi txirrindu salgai. BH markakoak. Emakumezkoenak. Bat handia eta bestea ertaina. Oso oso merke. Gutxi erabiliak. 943722727.
- ➔ Gurdi denda salgai, 6 plazakoa. Abantzearekin. 660613510.
- ➔ Argazki objetiboa salgai: Sigma 70200. 2,8 diafragma, Apo/Ex/Hsm. Berria. Erdi prezioan. 656415678.
- ➔ Forest kanping-gurdi salgai. Behin bakarrik erabilia. Prezio interesgarria. 943884209.
- ➔ 2 aldiz bakarrik erabilitako 4 pertsonentzako kanping denda salgai. Bi gela eta abantzea. Oso prezio onean. 653743859. Joan Mari.
- ➔ Umeentzako kotxesila berria salgai. Oso garri guztiak. 150 euro. 659511578. Miren.
- ➔ Land Rover luzearen parrila salgai. 150 euro. 943885831.

erosi

- ➔ Bigarren eskuko bizikleta estatikoa erosiko nuke. Ainhoa. 666325448.
- ➔ Artoa txikitze makina erosiko nuke, eskuzkoa edo elektrikoa. 943181023.

errentan hartu

- ➔ Estetikako kabina alokatu nahi da. 943880019.

Animaliak

salgai

- ➔ Setter ingeles arrazako txakurkumeak salgai. 2 hilabeteak. Arraza onekoak. 661950465.
- ➔ 4 artzain txakurkume salgai. Merke. 943885831.

Laskorain, 8 - behea

Gidariak behar dira Udaletxe eta Foru Aldundietan lan egiteko. Eskola graduatua. Presta zaitez. 943444509.

Tolosa, Hondarribia, Lasarte eta Hernaniko udaletxeetan 18 udaltzain behar dituzte. Eskola Graduata. Informazioa dohan. 943444509.

Gida-eskola irakasleak, eta garraiolariak. Profesional bihur zaitez. Langabizirik gabeko lanbideak. 1800 euro g.g.b. Informa zaitez. 943444509.

Harreragileak, gidariak, lorezainak, atezainak, zaindariak, telefonistak, mantenenimendua, zerbitzu anitzak... Udaletxe eta Foru Aldundietan lan egiteko. Informa zaitez. 943444509.

Suhiltzaile Parkeak. Donostia, Tolosa eta Zarautzen deialdiak laster. Batzbesteko diru-sarrerak: 1.300 euro. Presta zaitez. 943444509.

Donostia, Irun, Hernani; lanpostuak, Administariak (laguntzaile eta teknika-riak). Soldata finkoa: 1000 euro ggb. Presta zaitez. 943444509.

Tolosa

Gizarte laguntzaileak, 4 lanpostu libre Gipuzkoako Udaletxeetan lan egiteko. Eskakizuna: Eskola Graduata. Informa zaitez. 943444509.

Liburutegi-laguntzaileak. Lan egin ezazu. Udaletxeak, artxiboak eta Unibertsitateak. Berehala altxatzeko. Informazio dohan. 943444509.

Baso-pertsonala. Parke eta Natura Erreserbatan agente, zaindari zein peoi bezala lan egiteko. Lanera altxatzeak laster. 943444509.

Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401

AMPO-POYAMen lan egiteko
Goierri. Erref. 103497/1

CNC TORNULARIA

Goierri. Erref. 103188/2

ELEKTRIZISTA, 1. MAILAKO OFIZIALA

Goierri. Erref. 103079/6

INKESTATZAILEA

Goierri. Erref. 103823/5

AUTOMATIZAZIO TEKNIKOA

Altsasun. Erref. 103196

ELEKTRIZISTA

Altsasun. Erref. 103198/3

TEKNIKO KOMERTZIALA

Goierri. Erref. 103311/2

ZERBITZARIA

Goierri. Erref. 103337/3

BOBINATZAILE APRENDIZA

Legorretan. Erref. 103400/3

ENKOFRATZAILEA

Beasainen. Erref. 103405/3

SOLDATZAILEA

Goierri. Erref. 103811/4

ELEKTRIKARIA

Goierri. Erref. 102871/4

Lana

eskaintzak

➡ Neska euskalduna prest legoke tabernan zein ume zain moduan lan egiteko. 610368543.

➡ Klinika laguntzaile esperientzizduna eskaintzen da arratsalde zaharrak zaintzeko 943884343 - 605761630 (Raquel).

➡ Lazkaoko emakume bat edozein lanetarako eskaintzen da. 943880672.

➡ Goizetan ileapain-degi batean lan egingo nuke, Goierri inguruan. Josune. 650040753.

eskaerak

➡ Tabernan lan egiteko pertsona bat behar da, Lazkaon. 943886852.

➡ Neska bat behar da Ordiziako taberna batean lan egiteko. 605772623. 15:00etatik 18:00etara deitu.

➡ Emakume bat behar da Beasainen, irailaren erditik aurrera, urtebete-ko neska txiki bat zaindu eta etxeko lanak egiteko, goizetan. Deitu asteazken eta ostegunetan, 8etatik aurrera. 615749775.

➡ Neska edo emakumea behar da Beasainen, haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943085602 - 656777471.

➡ Neska bat behar da tabernarako. Esperientziaduna. 943887197. 9:00-14:00etara deitu.

➡ Gaintzako tabernan neska bat behar da. 943886243.

➡ Neska bat behar da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 943087454. 13:00etatik 15:00etara deitu.

➡ Neska edo emakume euskalduna behar da 2 haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943028038.

➡ Neska edo emakumea behar da sagardotegi batean lan egiteko, larunbat iluntzetan eta igande batzutan. 615700408.

➡ Emakume bat behar da Beasainen, 2 haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. Kontratuarekin. 615732366 - 943085381.

➡ Pertsona bat behar da sagardotegian lan egiteko. 676049931.

➡ Goierriko taberna batean lan egiteko neska euskalduna behar da. 649052806.



1984an jaioetako lazkaotarrak, Urretxuko Santa Barbaran

Aurreko lerroan, ezkerretik eskuinera: Amaia Aizpurua, Izaro Lazkano, Jon Sebastian, Migel Angel Rabanal, Eli Ca-cho, Iban Rodriguez, Gaizka Urain, Iraitz Imaz, Mikel Garcia, Nerea Senperena, Maider Altuna, Amaia Azkarate, Amaia Rubio eta Ager Egurbide.

Bigarren ilaran: Alazne Gonzalez, Eneko Tejados, Izaskun Alarcia, Maitane Sanchez, Xabier Zurutuza, Jon Soraluze, Amaia Martin, Julen Olanan eta Jonathan Avila.

Hirugarren ilaran: Ainhoa Iraeta, Ainhoa Vicente, Amaia Vicente, Jon Kepa, Iker Imaz, Edurne Etxeberria, Laura Mar-tin, Leire Miguel, Iker Aldasoro eta Xabier Urdangarin.

Laugarren ilaran: Asier Aldasoro, Iban Mingo, Jon Fontenla, Irati Aldanondo, Aritz Larrauri, Xabier Azpiroz, Beñat Garmendia, Bikenai Miguez eta Xabier Bergara.

Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira. Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.

X A X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 75 58 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

Zure seme-alabak...
Irakurtzeko edo idazteko zailtasunak baditu; hizkuntzaren garapen edo agertzearen atzerapena badu; ahotsik gabe gelditzen bada; edo janariak mastikatze eta tragatzeko edo arnasa hartzeko arazoak baditu...

Mintzaera, berba eta ahotsaren gorabeheren tratamendua, diagnostikoa eta prebentzioa

ahots Logopedia

Nagusia 2 1^oEsk. 20200 Beasain Tfnoa 605 71 69 15 - 655 73 67 35



Xenkegi
DEKORAZIOA


Tel: 943 889 113 Faxa: 943 028 429

xenkegi@euskalnet.net

Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Bainuak
Ateak
Zorruak
Armairuak

BEASAIN





Lukusin enparantza, 6

943 08 51 61

ORDIZIA

Oilasko erreak

Ukondo erreak

Saiheski erreak

Piper beteak: haragizkoak, bakailaozkoak, odolkozkoak...

Barazki freskoen menestra

Ilarrak urdaiazpikoarekin

Untxia perretxikoen saltsan

Txanpinoiak saltsan

Siglo XX pelotak

Siglo XX tripakiak

Haragi eta espinaka lasa ak

Kaneloiak

Kroketak

Pudin ezberdinak

Antxoak

Ensaladilla rusa

Txipiroiak tintan

Isatsa saltsan

Mejiloiak

Pulpoa

Postreak: sagartarta, arroz esnea, intxaur eta hur pudina, torradak...

Eta zuk eskatutako beste edozer, enkarguz!



UDA HONETAN ERE EMAIOZU HOZKADA BAT ZABORRARI!!

Eskura ezazu gure kamiseta

ZER EGINGO ZENUKE ZABORRAK GUTXITZEKO?

Egiguzu proposamen bat.

Erantzuten diguten lehendabiziko 50 lagunei kamiseta bana emango diegu. Bidaliezazkiguzu zure datuak, zein koloretako kamiseta (urdina, berdea edo horia) nahi duzun eta zein neurri duzun (ume-neurria, S, M, L edo XL) adieraziz.

Helbidea: Sasietan Mankomunitatea, Martina Maiz 3 behe, 20200 Beasain.

IKENA

DEKORAZIOA - ALTZARIAK



2003
azaro 46

10

11
igeltseritsa
beiragintza
zurgintza
iturgintza
elekttrizitatea
pintura
eskaioia
berogintza
alarmak
lorazantza
hosgabetzeak
iragazkaizpenak
mobleria, industrialia
mekintza, aholkularitza
aholkularitza, legeztapenak
diseinu, juridikoa
dekorazio, proiektuak
logelak
egongelak
aulkiak
mahaiak
besaulkiak
haurrentzako, logelak
lanparak
koadroak
mahai, tresneria



OHARRA:
IKENAREN
Ordiziako
denda ikusi!!

2003
azaro 46

13

- Sukalderako aulkiak ✓
- Jangelarako ✓
- Terrazarako ✓
- Logelarako ✓
- Sukalderako mahaiak ✓
- Jangelarako ✓
- Bainugelarako aulkitxoak ✓
- Baxera karratuak ✓
- Baxera borobilak ✓
- Baxera klasikoak ✓
- Baxera bereziak ✓
- Kafe jokuak ✓
- Te jokuak ✓
- Kikarak ✓
- Kikaratxoak ✓
- Katiluak ✓
- Beirak ✓
- Mahai tresnak ✓
- Bandejak ✓
- Txarroak ✓
- Lorontziak ✓
- Sukaldeko erlojuak ✓
- Iratzargailuak ✓



1

- Egongelarako alfombrak ✓
- Logelarako ✓
- Haurrentzako logelarako alfombrak ✓
- Koadroak ✓
- Mihiseak ✓
- Erretiratu markoak ✓
- Koltxoak ✓
- Oheak ✓
- Sofak ✓
- Espiluak ✓
- Komodak ✓
- Apain mahaiak ✓
- Apalak ✓
- Liburu apalak ✓
- Helduentzako logelak ✓
- Gazteentzako ✓
- Haurrentzako ✓
- Kutxak ✓
- Erretiluak ✓
- Izarak ✓
- Zamauteriak ✓
- Kuxinak ✓
- Armairuak ✓
- Sinfonier-ak ✓
- Galan-ak ✓
- Etixerako osagarriak... ✓



+

ikena



Padre Urdaneta 9 bajo
20240 Ordizia
Tfnoa: 943 16 04 31
Faxa: 943 16 11 65
Martina Maiz 3 entrp. of 3
20200 Beasain
Tfnoa: 943 08 53 11
Faxa: 943 16 11 65